

txintxarri

urtekarria




TXINTXARRI

PISARRO

HORTZ KLINIKA DENTAL

IÑIGO DE LOIOLA, 9 BEHEA
LASARTE-ORIA TEL: 747 40 33 21

ODONTOLOGIA OROKORRA | ODONTOLOGIA ESTETIKOA | KIRURGIA | ENDODONTZIA | PADI |
ORTODONTZIA | PERIODONTZIA | ODONTOLOGIA PEDRIATIKOA | ZURIKETA | PROTESIA



MILA ESKER LAGUN ZAITUZTEGULAKO!



ANTOLATZAILEA: TTAKUN KULTUR ELKARTEA

* Irabazleek oparia jasotzeko azken eguna
2025eko urtarrilaren 6a izango da! Zorionak guztiei!

2024. urtea

Urtarrila

Otsaila

Martxoa

Apirila

Maiatza

Ekaina

Egutegia

Uztaila

Abuztua

Iraila

Urria

Azaroa

Abendua

4-5

6-7

8-9

10-11

12-13

14-15

16-17

18-19

20

21-23

24-26

27-28

29-30

Sumario fondoko zein egutegiko irudiak: freepik

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo
Gonzalez, Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux
Artetxe, Maitane Rebe, Julen
Basterra, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Xuban Urdalleta, Nikola
Iraola, Nora Navarro, Aimar
Hernandez, Gari Iraola eta
Iñigo Ibarburu.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Makulu Ken taldearen agurra
Euskal afrobeat musika estiloa 2007tik jorratu izan duen Makulu Ken talde lasarteoriatarrek Jalgi kafe antzokian eman zuten ibilbidea ixteko kontzertua, "dena hasi zen tokian". Gonbidatu berezi ugari aritu ziren beraiekin ohol-tzan, izan ere, "etxean etxekoentzako despedida" izan zen aipatu emanaldi hori, 18 urteko musika egitasmo bati amaiera emateko modua. Ondoren, Flor de Otoño DJarekin jarraitu zuten festa. "Kontratazio falta" izan zen proiektua amaitzearen arrazoi nagusia.



Azken kontzertua. TXINTXARRI

Begiristain anaiak, 2. mailako Gipuzkoako txapel-dun

Maila eta pilota modalitate ezberdinetako Gipuzkoako txapelketak jokatu zituzten urte hasieran. 2. mailako Pala motzeko finalean Lasarte-Oriako ordezkariak izan ziren, Jon eta Mikel Begiristain anaiak. Altxako pilotalekuan lehiatu zen eta EPLE 2ren aurka (Aitor Estefano eta Abel Pichel) jokatu. Lasarteoriatarrek izan ziren nagusi, 33-40. 1. mailara igotzea ere lortu zuten.

Duela 100 urte ereindakotik loratutakoa ospatzen hasi ziren 100 urte zuekin leloa aukeratu zuten Ormazabal loradendak bere ehungarren urteurrena ospatzeko. Hala, urte luze hauetan euren ondoan izan zituzten herritar eta bezeroei eskerrak emateko ere baliatu zuten hori. Otsailen aurrera eraman zuten ekitaldi nagusia eta gainerako ospakizun ekimenak iragartzeko baliatu zuten agerraldia.

Lasarte-Oriako atletak Euskadiko txapelketako podiumera igo ziren

Atleta lasarteoriatar ugari jokatu zituzten Euskadiko txapelketak, bai Donostian, bai Gastei-

zen; lau domina kolokatu zituzten guztira. Jauzi probetan jantzi zituzten herriko kirol taldeko kideek hiru domina; urrezko bi eta brontzezko bat. Naroa Furundarenak luzera jauzi (5,84 m.) zein jauzi hirukoitze-ko (12,56 m.) lehen postua eskuratu zuen nagusitasunez; luzera jauziaren kasuan, denboraldiko bere marka onena izan zen. Oinatz Almagro, aldiz, hirugarren postuan (13,30 m.) sailkatu zen jauzi hirukoitze proban. Bere marka 60 zentimetro ondu eta 18 urtez azpiko Espainiako txapelketako gutxienez oso gertu geratu zen gaztea.

Rafa Diez herritarra ez dute berriro epaituko 'Bateragune auziatik'

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak amaitutzat eman zuen *Bateragune auzia* eta erabaki zuen ez dituela berriro Madrileramango 2011n epaitutako bederatzi pertsonak, Rafa Diez lasarteoriatarra horien artean. Epaimahaiko 11 magistratuetik zazpi egin zuten afera hori ixtearen alde.

Nerabezaroa, gaztetxoekin lanketa emozionala egiteko "garai aproposa"

Haur eta nerabeen emozioen bi-delagun: nola zaindu seme-alaben emozioak hitzaldia eman zuen Donna Apellaniz Nieto terapeuta emozional sistemikoak, gaztelaniaz. Lepo bete zuten Antonio Mercero aretoa gurasoek, gaiak herritarren artean jakin-mina piztu zuela erakutsita.

Hausnarketa interesgarri ugari partekatu zituen adituak, esate baterako, hau: "Haurren eta nerabeen guraso guztiek, uneren batean, orientazioa behar dute hezkuntza prozesuan beren funtzioak "behar bezala" garatzeko. Hala ere, laguntza edo babes horren helburuak ez du erreparatzaile edo terapeutiko hutsa izan behar; aitzitik, prebentzio-koa izan behar du, eta familiako kide guztien garapena sustatu behar du".


Zinegotzi karguari uko egin zion Anne Ugarteburu Cialcetak

EAJko zinegotziaren kargu uztearen berri eman zuen udalbatzak, hilabete horretako ohiko saioan. Ugarteburuk berak hitza hartu zuen, eta oposizio alderdi guztientzat esker hitzak izan zituen; horiek berarekin izanda-

ko "eskuzabaltasuna" jarri zuen balioan. Kultur etxeko lankideak ere gogoan izan zituen, horien-gandik ere "asko ikasi" zuela nabarmenduta. Hitzartzea amaitu aurretik, herritarrei ere zuzendu zizkien hitz batzuk: "Hein batean barkamena eskatu nahi diet, nigan konfiantza jarritz, EAJri bozka eman zieten herritarrei; agian, orain, dezepzioa senti dezakete nire dimisioarekin, baina esan nahi nieke hor izango nautela, beraientzako". Amaitzeko, eskatu zuen indarrean dagoen legealdia "errespetuan eta elkarrekiko laguntzan" oinarritu dadila.

Eider Redondo, Euskadiko txapeldun

Herriko atleta gaztea podiumeko koska gorenera igo zen Euskadiko Proba Konbinatuen Lehiaketan. Ostadar SKTko atletak lehiaketa egonkorra egin zuen eta lehen postuetan izan zen jokatu zituen bost probetan: 60 metro hesi lasterketan bigarren (9,87 segundo) sailkatu zen Redondo eta altuera jauzian (1,39 metro) zein pisu jaurtiketan (8,57 m.) hirugarren



Euskadiko txapeldun. G. REDONDO

amaitu zuen. Luzera jauzian ere bigarren (5,10 m.) postua eskuratu zuen eta 600 metroko lasterketako garaipenak eman zion txapela herritar gazteari.

LOKEko judoek dominak jantzi zituzten Tortosan

Infantil mailako Espainiako kopa lehiatu zuten Maria Escibanok eta Anne Linazasorok. Tortosan (Tarragona, Katalunia) lehiatu ziren erkidego ezberdinetako aurkarien aurka eta launa borroka egin ostean, biek domina jantzi zuten. Escibano 57 kilo azpiko promozio mailako bigarren sailkatu zen; Linazasorok, aldiz, 63 kilo baino gehiago-



Rosa Luxemburgo batailoiko kideen talde argazkia. TXINTXARRI

Gudari orietarrei omenaldia

Rosa Luxemburgo batailoia argazki bat gehitu zieten Oriako Zirkuitu etorbidean daudenei. Islada Ezkutatuak eta Lasarte-Oriako Udalak egindako ekitaldian ezagutarazi zuten eta irudiaren edukia eta testuingurua azaldu. Oriatar ugari parte hartu zuen armada horretan.

ko mailan hirugarren postua eskuratu zuen.

Urtarrileko borobila, Osakidetzari buruzkoa


Borobilean Elkarteak aurrera eramandako *Osakidetza kinka larrian?* mahai inguruaren izenburuari azken batean kendu zioten galdera ikurra lau gonbidatuek, bakoitzak bere alor eta ikuspuntutik argi adierazi baitzuten ataka estuan dagoela osasun sistema publikoa. Hauek izan ziren Oriarte Landaberri institutuko musika gela goraino bete zuten herritarren aurrean jardun zirenak: Onkologikoa Ospitaleko Paziente eta Erabiltzaileen Batzordeko nahiz Izan Inurri elkarteko kide Olatz Mercader, lehen arretan aritutako sendagile erretiratu Ina Idarreta, Gasteizko legebiltzarkide (EH Bildu) Rebeke Ubera eta DOPA Donostialdea Osasun Publikoaren Alde plataformako kide Kontxi Rebollo.

Yeray Rodriguez Martin gaztearen eta familiaren borroka

Hesteetako patologia batekin jaio zen Yeray Rodriguez Martin lasarteoriatarra. 14 urte ditu, eta denbora horretan gaixotasunaren ondorioz bizitakoak kontatu zizkion bere ama Patriciak TXINTXARRI-ri. Bidea ez dela erraza izaten ari aitortu zuen, baina, zailtasunak zailtasun eta nekeak neke, aurrera egiteko kementa

badutela erakutsi zuen solasaldian zehar. Elkartasun keinuak ere jaso dituzte, gero eta gehiago; azaldu zuen horiek "motibazio handia" eragiten diela bidean aurrera jarraitzeko.

"Yeray bi patologia ezberdin ditu oraintxe bertan", zehaztu zuen amak. "Horietako bat, jaio zenean jakin genuen, hesteak kanpoan zituela jaio baitzen. Momentu hartan, nire iritziz, ez zuten behar bezala jokatu, eta hala uste genuelako salaketa jarri genuen, galdu egin genuen arren; zaila da Osakidetzari irabaztea".



Yeray (erdian) eta gurasoak. P. MARTIN

Beñat Telleriak Errota Harria txapelketa irabazi zuen

Gari Garmendia *Garmendia II*, Xabat Olaizola, Beñat Telleria eta Inhar Urruzuno harri jasotzaileek 107,2 kiloko bola altza behar izan zuten hiru minutuko txandan. Telleriak 28 aldiz jaso zuen harria, Garmendia II.ak 27 altxaldi egin zituen eta Olaizolak eta Urruzunok 24na egin zituzten. Hortaz, herritarrek irabazi zuen.

Palestinarren aurkako genozidioa gelditzeko eskatu zuten beste behin

Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Dinamikak deituta, 150 bat lasarteoriatarrek parte hartu zuten manifestazioan. Israelek Gazan aurrera daraman eraso salatu eta Europaren babesa gaitzetsi zuten. Okendo plazatik abiatu zuten ekintza. Hamarnaka herritar jarri ziren *Israel genozida, Palestina askatu* zioen pankarta atzean.

Adiskidetasunaz eta botere harremanez, umorez eta kantuz

Buhameak taldeak *Erik eta Win* ikuskizuna ekarri zuen Manuel Lekuona Kultur Etxera. Bina bertsolarik eta musikaririk osatutako taldeko bi kide, Unai



Lizarralde eta Muñoa. TXINTXARRI

Muñoa eta Aitor Atxega lasarteoriatarrek badira ere, lau urteko ibilbidearen ondoren egin zuten emanaldia herrian. Areto erdia bete zuten ikus-entzuleek musika, antzerkia, bertsolaritza edota poesiaren bidez, Muñoak eta Ander Lizarralde bertsolariek egindako gogoetaren berri izan zuten. 1990eko Gipuzkoako Ber-

"Herrian hazi eta herrian hezi"

Haur eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikulazio kanpainaren barruan, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeek festa egin zuten, herrian eta eskola publikoan ikastearen alde egitea sustatu asmoz. Bertan ikasten duten haurrek marrazki bidez adierazi zuten zer den eskola beraientzat, eta zenbait familia ere beren hautuaz mintzatu ziren. Porrotx eta Marimotots pailazoek ere parte hartu zuten festan. Talde argazki erraldoiarekin amaitu zuten.



Matrikulazioaren festan talde argazki erraldoia atera zuten. TXINTXARRI

tso Txapelketan elkar ezagutu zuten eta binakako ariketa bat egiterakoan, Muñoak ez zion kasurik egin kideak proposatutako doinuari. Oiartzuarrak ez zuen erabilitakoa ezagutzen, baina, hala ere, lagun egin ziren. Harreman horretan, ordea, botereak ere badu zeresanik eta horri buruz hausnartu zuten: batek nahiago du meneko izan, besteak, gailendu; batek, eskuzabal izan, besteak horri probetxua atera, batek koldar jokatu, besteak ausart plantak egin... Atxegak eta Imanol Kamiok jotako musikak lagunduta, bertotan eta kantuan, kontakizuna josi zuten.

Buruntzaldea IKTKo igerilariak, Hernaniko Sariko podiumean

Hernaniko 25. Igeriketa Saria jokatu zuten Hernaniko kiroldegian eta bikain aritu ziren Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak. Infantil, Junior eta Absolutu mailetakoko hamasei igerilari lehiatu ziren eta gehienek

euren markak hobetu zituzten. Bereziki aipagarria izan zen Garazi Etxeberriaren lana, izan ere, 100 metroko proba librean bigarren postuan sailkatu zen.

Kiroldegi berriko lanak 17.598.410 eurotan esleitu zituen udalak

Construcciones Moyua eta Altona y Uria enpresak ari dira lanak egiten eta 27 hilabete izango dituzte aurrera eramateko. Hala, kiroldegi berria 2026rako martxan egotea aurreikusten du Lasarte-Oriako Udalak.

Espetxea eta etxea lotu zituen, hamahirugarrenez, oholtzak

Harresi Guztien Gaietik herri ekimenak aurrera eraman zuen XIII. Errezitaldia, kultur etxean. Ohi bezala, espetxean egon diren eta bertan jarraitzen duten preso lasarteoriatarren eta euren senide eta gertuko bizipenak ekarri zituzten pantaila handira. Aurtengoan, oholtzak baino protagonismo handiagoa izan zuen

pantailak, dokumental bat proiektatu zutelako: *Oroitzen zaituztegunean... mahaia guztientzat ipinita.*



Dantzarien emanaldia. TXINTXARRI

Urte berria, aldarrikapen bera

Urtarrila amaitzean, urteko lehen Azken Ostirala aurrera eraman zuten. Lasarte-Oriako Sarek deituta, 70 bat lagunek bat egin zuten aldarrikapen ekintzarekin. Elizatetik abiatuta, Okendon hilabeteko irakurketa partekatu

zuten. Hilabete horretan bertan Bilbon egindako manifestazio jendetsua gogoratu zuten, besteak beste. Gatazka "behin betiko konpontzeko" milaka "giltza" bildu zituen mobilizazioa "bultzada garrantzitsua izan zen euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea eragozten jarraitzen duten salbuespen-juridikoei amaiera emateko".

Aratz Fuentes eta Euskadiko Selektzioak ezin izan zuten Espainiako txapelketan aurrera egin

Erkidegoen arteko Espainiako Txapelketako sailkapen fasea jokatu zuten, 16 eta 19 urte arteko jokalariena. Euskadiko selektzioek Alcazar de San Juan, Gaztela Mantxan jokatu zuten euren lehen fasea eta 16 urtez azpiko taldean Eguzki Areto Futbola klubeko Aratz Fuentes gaztea izan zen lehian. Neurketarik ez zuen irabazi selektzioak eta beraz, ez zuen azken fasea jokatu. Gaztela Mantxaren aurka 13-0 galdu zuen; Errioxaren aurka, 3-4; eta, azkenik, Balear Uharteren aurka, 4-1. Emaitzak txarrak izanagatik, jokalaria lasarteoriatarrek esperientzia eder bat bizi izan zuten txapelketa horretan.



Fuentes, baloiairekin. EFF



2025 zoriotsua opa dizuegu!

Zirkuito ibilbidea, 12 20160 • LASARTE-ORIA
Tel. 943-37 14 40 Mugikorra: 608 39 18 85
carroceriaslasarte@carroceriaslasarte.com

Carrocerías Lasarte Karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

• Kabina labeduna

• Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala

• Tapizatuen garbiketa

Interneten eta sare sozialen dimentsioak aztertu zituzten

MuseumLAB izeneko hezkuntza proiektua garatu zuen Oriarte BHI institutuko 4. mailako ikasle talde batek, Jaime de los Rios artista sortzailearekin batera. Laser gailuekin sortutako hiru dimentsiotako argi eskulturen bidez, Interneten eta sare sozialen dimentsioak eta irismena irudikatu zituzten. Añorgan dagoen Museum Cemento Rezola aretoan jarri zuten ikusgai erakusketa eta instituturera eraman zuten gero.



Añorgako erakusketa. ORIARTE BHI

Himalaiaren edertasunaz eta gogortasunaz

Lasarte-Oria Trailek antolatuta, Alex Txikon alpinistak hitzaldia eman zuen kultur etxean. Jakin-mina piztu zuen ekimenak eta hitzaldi aretoa ia bete egin zuten herritarrek. Manaslu eta Annapurnara egindako espedizioei buruz hitz egin zuen bizkaitarrak, zenbait argazki eta bideo laburrek lagunduta, eta epika albo batera utzita, zintzo mintzatu zen bizitakoaz.

Texas Lasartearrak euskaraz entrenatzeko proiektu pilotoa jarri zuen martxan

Texas Lasartearra CF eta Lasarte Oriako Udalak akordioa sinatu zuten; proiektuaren helburua da lau urteko epean kirol elkarteko 16 urtez azpiko talde guztiak euskaraz entrenatu dezaten. Udalak elkartea lagundu du hizkuntza diagnosi bat egiten eta hurrengo hilabeteetan lau entrenatzailek –Markel De Los Mozos, Nora Navarro, Iker Sarasola eta futbol eskolako koordinatzailea ere baden Ander Acuña– hizkuntza-entrenamenduko saioak jasoko dituzte euren taldeak euskaraz entrenatzeko abileziak beregatu ditzaten. Saio horiek

Kirolean Aholkulab aholkularitza kideek emango dituzte.

Lasarte-Oria udalerrri bilakatu zenetik, 38 urte

1986ko otsailaren 15ean sortutako batzorde kudeatzaileko kideek gidatu zituzten Lasarte-Oria udalerrri independente gisa eratzeko pausoak. Ama Brigitarren komentuan egin zuten aurreneko batzarra, Ana Urchuegia sozialista lehendakari izendatuta. Ekitaldi horretan gauzatu zuten bizilagunen ametsa, herri independente batean bizitzearena. Urtemuga gogoratzeko, Lasarte-Oriako Udalak gure herriaren bandera jarri zuen udaletxe zaharreko balkoian.

Ainara Elicechea Beitiak zinegotzi kargua hartu zuen

Hamazazpi kide osatzen dute udal korporazioa eta horietako batek otsailean hartu zuen kargua, EAJ alderdiko Ainara Elicechea Beitiak. Anne Ugarteburu Cialceta ordezkatu zuen. Txalo zaparrada batekin egin zioten harrera korporazioko kide berriari gainerako zinegotziek. Kargua zin egin ondoren, lepokoa jarri eta alderdikideen alboan eseri zen Elicechea.

Korapiloak askatzen saiatzea aukeratu zuten

Borobilean Elkartek eta Hiruki Larroxa kolektiboak elkarrekin aurrera eraman zuten *Gizonak parekidetasunaren bidean: aukerak eta korapiloak* hitzaldi-tailerra. Dozenaka gizon bertaratu ziren Oriarte Landaberri instituturara eta ariketa praktikoa batzuk egin zituzten lantzeko gaia testuinguruan jarri bitartean. Harremanetan jarraitzeko datuak bildu eta etorkizunean saio gehiago egitekotan geratu ziren.

Hiru Aldeta tabernako patata tortilla, Gipuzkoako onenen artean

Herrian famatua da Hiru Aldeta tabernako patata tortilla, Edu Etxeberrria jabeak prestatzen duena. Eguneroko bezeroak bakarrik ez, Gipuzkoako txapelketako epaimahaikideak ere liluratu zituen jaki horrek, hamabi finalistetako bat izendatu baitzuten. Donostiako Cebanc eraikinean jokatu zuten saio erabakigarri hori, hilabete amaieran.

Aitor Mansok 2023ko mendi lasterketen txapelketako garaikurra jaso zuen

Euskadiko Automobilismo Federazioak iaz antolatutako txapelketen sari banaketa egin zuen Mungian, Bizkaian. Hainbat izan ziren garaikurra jasotzera igo ziren gidari edo omenduak eta horien artean izan zen Aitor Manso herritarra. Mendi igoretako modalitatean jaso zituen Mansok sariak. Lasarteoriarrak sailkapen orokorrean, eserleku bakarreko zein 9. mailako sailkapenetan lehen postuan amaitu zuen lehia.

Sexu heziketa, etxeko elkarrizketa edo eskolako programa bat baino gehiago

Pornografia gaur egungo sexu heziketa ote? hitzaldia aurrera eraman zuen Eider Goiburuko psikologo eta hezitzaileak kultur etxeko hitzaldi aretoan, Treba Gurasoak egitasmoaren barruan. Bere burua eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak sustatzen duen proiektu hori aurkeztuta gaiari heldu zion Goiburuk, "beti"



Eider Goiburuko, hizketan. TXINTXARRI

egin ohi duen moduan, galdera bat botata parean zituenei: "Zer da sexualitatea?". Hasierako lotsa kenduta, gurasoak hasi ziren apurka-apurka iritziak ematen eta adituak proposatutako dinamikan sartzen. Definizio orokorra, hizlariaren arabera, hau da: "Izaera sexuala bizitzeko modua". Kontzeptu horrek hiru printzipio orokor dituela azaldu zuen segidan: gizaki guztiak gabela sexuatuak baina den sexualitatea ez dagoela errekonozituta gizartean; bizitza osoan zehar dugun ezaugarri bat dela; eta sexualitate anitzak ditugula guztiok.



Zabaletako bizilagunak, euren auzoan oles egiten. ZABALETA AUZOLAN

Herrian barrena, santa eskean

Ugari izan ziren Santa Ageda bezperan makilak hartu, kalera irten eta oles egitera animatu zirenak: Zabaletako auzotarrak, Erketz Euskal Dantza Taldea eta Xumela korua, hain zuzen ere. Azken horiek Brigitarren komentuan izan ziren.

Apartamentuak eraikitzeak akordioa, gazteen emantzipazioa ahalbidetzeko

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura departamentuak eta Lasarte-Oriako Udalak adostu zuten egun Maialen Chourraut kiroldegia dagoen lur eremuan eraikitzea etxebizitzak; kiroldegi berria martxan jarri eta behin zaharra erabilgaitz geratu eta gero abiatuko dituzte obrak. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza sailak 11.000.000 euro baino gehiago bideratuko ditu apartamentu horiek eraikitzen.

Gazteen emantzipazioaren arazoa jorrazteko komitea sortu zuen Lasarte-Oriako GSKK

Etxebizitza askorentzat arazoa bada, gazteei bereziki nola eragiten dien aztertzeke bilera egin zuten Gaztelekuan Lasarte-Oriako Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS). Herriko gazteen egoeran sakondu eta errealtate hori gertutik landu nahi du taldeak. Egoerari buruzko zenbait datu eman zituen kideetako batek, arazoa testuinguruan kokatzeko. 2023ko datuen arabera, EAEn 16-29 urte bitarteko emantzipazio tasa %15 da eta batezbesteko emantzipazio adina 30 urte, Europako beste herrialdeekin alderatuta "oso altua". Horren azalpenetako bat da batezbesteko soldata 1.005 euro izanda, alokairuarena 944 euro dela. Hau da, ordainsariaren %93,9. Gai-

nerako gastuak gehituta, "soldata osoa baino gehiago behar da bizitza duin bat izateko".

Allerruko lotuneko lanak bukatu zituzten

2022ko azaroan eraikitzen hasitako azpiegitura berriak "bereziki trinkoa" den trafikoa berrantolatuko duela nabarmendu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak. Azpiegituraren ezaugarri nabarmenena corten altzairuarekin egindako bi zubi berriak dira. "Atmosferaren korrosioak ez die eragingo eta zubi zaharrak zituen galibo arazoak saihestuko ditu. N-1 errepidearen lotune berri horren "garrantzi kualitatibo eta kuantitatiboa" azpimarratu zituen Eider Mendoza ahaldun nagusiak. "Probintzia mailan logistikaren gune neuralgiko bat da, Lasarte-Oriako industrialde, Zubietako ingurumen



Allerruko zubi berria. TXINTXARRI

zentro edota Eskusaitzeko industria parkera sartzeko bidea emango duena".

"Egia, aitortza, justizia eta erreparazioa" eskatu zituen EH Bilduk

Aitortza ekitaldia egin zuen Lasarte-Oriako EH Bilduk, due-la 21 urte auto istripuz hil ziren Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi herritarrak oroitzeko. Euren senide Juankar Balerdi bisitatzera zihoazen Almeriako espetxera ezbehar hori gertatu zenean. Espainiar Estatuaren "mendekua" izan den dispertsio politikaren eraginez gertatu zela adierazi zuten, eta baita euskal presoen beste hamalau ahaide eta lagun heriotzak ere.

Edukiontzia erre batek bost auto kiskali zituen Sasoeta ibilbidean

Sute ikusgarri bat gertatu zen Sasoeta ibilbidean. Edukiontzia erre batek ondoan zituen bost auto kiskali zituen. Bizilagun pare batek azaldu zuten, sua "berehala" zabaldu zen haizea-gatik eta suhiltzaileak iritsi zirenerako ez zegoen ezer egiterik.



Kiskalitako auto bat. TXINTXARRI

Ormazabal, denda bat baino (askoz) gehiago

Mendebete ezin da hitz gutxitan laburtu. Ez oparoa eta gogoangarria izan bada, bederen. Eta marka nahikoa pisuduna eta txalagarria ere bada egun bakarrean ospatzeko. Horrexegatik, hurrengo hilabeteetan ekimen gehiago aurrera eraman zituzten Ormazabal loradendakoek. Edonola ere, larunbat hori jarduera bete izan zuten; soberan inoiz ez dauden estimuz, esker onez eta aitortzaz blaitu zituzten Ramon Ormazabal eta Koro Ortega jabeak.



Ramon eta Koro, dantzarien artean igarotzen. TXINTXARRI

Ostadarreko gurasoek kirola eta ongizate emozionala landu zituzten

Ostadar SKTko gurasoek *Gurasotasun positiboa eta ongizate emozionala kirolean* izeneko formakuntza jaso zuten Antonio Mercero gunean, hiru astez. Alex Remiro Realeko lehen taldeko atezainak eta Futbol Mas Fundazioak sortutako proiektua da eta helburua futboleko prestakuntza garaian kirolari eta euren senideen ongizate emozionala lantzen laguntzea da.

Lasarte-Oria, gaitzez salbu aurten ere

Negu arraroa izan bazen ere, erdia egin zuen urtaroak eta loraldia gero eta gertuago zegoen. Natura lozorrotik esnatzeko garaia gertu zegoenez, aurretik uzta eta abereak zaindu beharra dago. Horretara etorri ziren txantxo bihurriak Lasarte-Oriara, ituna berrestera, eta herriak atek zabaldu zizkien urtero bezala. Hori baino gehiago ere egin

zuten, noski: dantzaz eta kolorez bete zuten erdigunea.



Txantxoak, dantzan. TXINTXARRI

Irudimenaren lur aberatsa esploratzen

Gure lurretan maiz entzuten den baieztapena gogoan izanda, oiha-na berdea izan dadin, euria beharrezkoa da. Emankorra, basatia, askotarikoa eta, nahitaez, hezea izan zen aurtengo inauterietako gaia. Jantzia aukeratzean kontuan hartu beharrezkoa. Lasarte-Oriatarrek erakutsi zuten, gainera, koloretsua, erpin eta heldubide ugariak, ere badela; gaiari iru-

dimena gehituta, emaitza eskarmentu luzeko esploratzaile abilena txunditzeko modukoa izan baitaiteke. Adibidez, Felix Rodriguez de la Fuente. Berak aurkeztutako *Gizakia eta Lurra* saioaren doinua entzungo zuten kalean ibili zirenek, eta zenbaitetan, ikusitakoa pantailan agertzen zenaren parekoa izan zen.

Ospakizun asteburua girotu zuten herriko ikastetxeen ospakizunek eta Antonio Mercero aretara bertaratu ziren gazteek. Amaitzeko, ohitura bilakatu denez, sardina erre zuten Okendo plazan.



Sardina erretzen, Okendo. TXINTXARRI

"Teo Xirimirin ondo ibili da"

Teo ederki ibili zen Xirimirin, eta bertso bazkari literarioan izan zirenak ere, Irakurle Txokoaren urteroko hitzorduan gai jartzaile lanetan debuta egin zuen Aintzane Usandizagak. Taldearen dinamizatzaile lekukoa eman zion Uxue Alberdirekin batera, ohiko bikotea aritu zen errimak asmatzen: Ane Labaka eta Maialen Lujanbio. Pasartez eta bertsoz jositako ia bi orduko saioan, barrea izan zen hirugarren harimuturra. Nola ez zuen ondo pasatuko, bada, ipuinetako ilegorriak?

Sahararren historiaz eta istorioez

Kristina Berasain Tristan kazetariak *Sahara, herri bat erresistentzian* liburua aurkeztu zuen Jalgi kafe antzokian. Hogei urtetako lana bildu du berriemai-le nafarrak lan horretan, euskaraz. Hitzak eta diapositiba bidezko irudiak uztartuta, hainbat pasarte partekatuta zituen saiora bertaratu ziren herritarrekin.

Aurreiritziak eta estereotipoak, kokolan

Ados Teatroak *Lagun beltz* asko antzezlanaren emanaldia egin zuen kultur etxean. Desberdintasuna buruzko komedia beltz honek herritar ugari jakin-mina piztu zuen. Xabi Luisen tabernara joango da, bere bikotekide Martarengandik 300 metrora egotea debekatua badu ere. Luisek hitzordu bat du eta lagunari joateko esango dio, nahiz eta honek ez dion jaramonik egingo. Halako batean, gizon batek laguntza eskatuko die kaletik. Tabernariak ez du nahi, baina Xabik atea irekiko dio. Ahal bezala azalduko die Bashir duela izena, afganiarra dela, maleta lapurtu diotela eta bertan zuela diru zorroa.

Urte berri on!



ELECTRICIDAD
ARREGUI

600 85 75 86

www.electricidadarregui.com

Gabonetako eskaintzak ditugu! ZATOZI!

MANTA ELEKTRIKOA



MAHAI LANPARA



KUXIN ELEKTRIKOA



Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

Oinarrizko osagaiekin errezeta erraz bezain goxoak kozinatzen dituen sukaldaria
Sasoiko produktuak, maitasunez sutan kozinatuta errezeta erraz eta goxoak presta daitezkeela erakusten ari da Ane Galardi Fernandez de Agirre (Lasarte-Oria, 1997) sukaldaria. Ez erakutsi bakarrik; jendea horiek egitera animatu dadin nahi du, eta horretarako, *bitxi_sua* Instagram kontua darama. Proiektu horretaz, eta beste hainbat kontuz mintzatu zen TXINTXARRI aldizkariarekin.

Aurpegiak marraztea maite duen artista

Zimurtasuna duen papera, ikatz ziria eta koloretako arkatzak hartuta, aurpegiak marraztea maite du Nere Tejeria Iriarte (Lasarte-Oria, 1978) herritarrek. Horrela sortu zituen Jalgi kafe antzokian erakusgai jarri zituen 11 artelanak. Horiei, ordea, normalean bere marrazkiei egiten ez dizkien eraldaketa batzuk egin zizkien erakusgai jartzeko, eta lan horietara ohituta ez dagoen arren, egindakoak merezi izan zuela iritzita, oso pozik agertu zen egilea. *In-proaurpegiak* erakusketaz hitz egin zion TXINTXARRI aldizkariari.

Mendian orientatzen irakatsi zien Joxepo Artolak

Lasarte-Oria Trail taldeak antolatuta, istripua izan edo galduz gero mendian nola bideratu irakatsi zion DYAKo kide Joxe Luis Artolak. Antonio Mercero gunean batu ziren hamabost bat lagunei IGN aplikazioaren berri eman zien. Alde teorikoa gainbegiratu, praktikoari eman zion garrantzi handiagoa.

Fikzioa eta errealitatea, euskaldunei buruz hitz egiteko

Korrika Kulturalaren barruan antolatutako jarduera zerrendako lehena aurrera eraman zuten. Okendo Zinema Taldeak antolatuta, *Bizkarsoro* filma ikusteko aukera izan zuten kultur etxera bertaratutakoek, baita proiektioaren ondoren Josu Martinez zuzendariarekin egindako solasaldian parte hartzekoa ere. Emanaldiaren aurretik bere lehen fikziozko lanari buruzko txantxazko *spoiler* bat besterik ez zion egin bilbotarrak: "Amaieran protagonista ez dago hilda".

Ekimen berezia izan zuten Buruntzaldea IKTKo igerilariak
Martxoko lehen asteburuan atsenden bazuten ere, Buruntzaldea IKTKo kideek Hazparneko Igerikatzeta eta Hernani KE igeriketa taldeekin batera antolatutako topaketan parte hartu zuten, Hernaniko Udal Kiroldegian.

Belaunaldi artekoen solasaldia izan zen bosgarren borobila
Emakumearen Nazioarteko Egunean atarian, hitzaldia aurrera eraman zuten Borobilean Elkar-teak eta Asunak talde feministak. Bi belaunalditako sei emakume elkartu eta gai askori buruz hitz egin zuten: sexualitatea, soldatapeko lana, zaintza, feminismoa eta beste hainbat gai. Oriarte Landaberrin egin zuten saioa eta, ordura artekoak bezala, arrakastatsua izan zen, herritarrez bete baitzen aretoa.

Mikel Izagirrek, brontzea Añorgako duatloian

Añorgako III. Duatloian Euskadiko esprint txapelketa izan zen jokoan. Lasarte-Oriako zortzi herritar izan ziren lehian eta Trinko taldeko Mikel Izagirre beterano 2 mailako podiumera igo zen; brontzezko domina jantzi zuen.

Auto bat trabatuta geratu zen Adarra kaleko eskaileretan

Adarra kaleko eskaileretan, oinez igo eta jaistekoetan, auto bat geratu zen trabatuta. Gertaera gertatik ikusi duten bizilagunetako batek TXINTXARRI-ri kontaktu zionez, gidaria nahastu egin zen, uste baitzuen ibilgailu batekin jaisteko moduko aldapa bat zegoela hor. Udaltzainak azkar bertaratu ziren ezbeharraren tokira eta minutu gutxi batzuk behar izan zituzten autoa bertatik erretiratzeko, grua bat erabilita.

Lasarte-Oriako partaidetzaren egoeraz hausnartu zuten

Berrikuntza Politikoa Esploratzen: Lasarte-Orian parte hartzearen kultura biziberritzeko ikuskuntzak ikerketa proiektuaren baitan, Oreki fundazioak antolatutako mahai inguru zikloaren lehen saioa aurrera eraman zuten Gando Iturri elkartearen egoitzan. Saio horretan auzogintzaren ikuspegitik Lasarte-Orian parte hartzeak bizi duen egoera hizpide izan zuten Ramon Ormazabal, Estitxu Alkorta eta Anne Ugarteburu herritarrek.

Euskalduntzeko egindako bideetaz

Harro herri leloa izan zuen lasterketa bat, 23. Korrika, gure herrira iristeko bezperetan, euskalduntzeko egindako bideaz harro dauden herritar batzuek euren bizipenak kontatu zituzten Ttakunenea elkartearen, Korrika Kulturalaren programaren barruan. Horren aurretik, hizkuntzari eta hiztunei buruzko ikerketa baten berri eman zuten Bea Egizabal umoristak, nola ez, umoretik.

LOKEko amateur gimnastak Gipuzkoako txapelketan lehiatzeko saikatu ziren

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastek hitzordu bikoitza izan zuten Lehen postuetan izan ziren eta jardunaldi erabakigarrian Gipuzkoako txapelketarako sailkapena eskuratu zuten, bai bakarka bai taldeka.

Eneko Mendizabal ergometroko Espainiako txapelketan lehiatu zen

Espainiako arraun ergometro txapelketa jokatu zuten Sant Jaume D'Envejan (Tarragonan). Proba guztien artean, arraun egokituko lehiaketa ere izan zen eta Hernaniko Arraun Elkarteko kide den Eneko Mendizabal herritarrek parte hartu zuten Leire Troitiño taldekidearekin batera.



Urdanpilleta eta Artetxe. TXINTXARRI

Aitor Manso eta Pablo Muga, Aiatik Andatzara igoeran saridunak

Mendi igoeren denboraldialdi hasiera eman zion Aiatik Andatzara igoera probak. 51 gidari bildu ziren Aiako irteera puntuan. Probako garailea Joseba Iraola izan zen arren, 9. maila maila zein 2.0 kopan lehenengo izan



Dozenaka herritar mobilizatu ziren herrian barrena. TXINTXARRI

"Gure bizitzekin, negoziarik ez!"

Urtero lez, Emakumearen Nazioarteko Egunean eta ondorengoetan makina bat ekimen aurrera eraman zituzten udalerrian, Asunak talde feministak antolatutakoak batzuk eta Lasarte-Oriako Udalak beste batzuk. Martxoaren 8ko manifestazioa izan zen jendetsuena.

ziren Aitor Manso eta Pablo Muga, hurrenez hurren.

Jon Pello Artetxe eta Peru Urdanpilleta, Udaberriko Sariko txapelidun

Intza Kirol elkarteko Nagusien 2. mailako bikoteak Udaberri sariko finala jokatu zuten Antzuolan. Jon Pello Artetxe eta Peru Urdanpilleta herritarrek Legazpiko Ion Agirre eta Aimar Telleria izan zituzten aurrez aurre. Lasarteoriatarrek 22-15 irabazi eta sari nagusia eraman zuten.

Ipuineko eta sare sozialetako loti ederrak, elkarrekin

Glu Glu taldeak *Loti ederrak* antzezlanaren emanaldia egin zuen kultur etxean. Familiei begirako obra ipuin klasikoaren egokitza-pena da, baina buelta bat emanda, egun nerabeek duten sare sozialekiko menpekotasunaz hausnartzeko eta edertasun estereotipoak hausteko.

Dozenaka haurrek parte hartu zuten hockey erakustaldian

Gipuzkoako Hockey Federazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, kirol hori lasarteoriatarrei ezagutarazteko zenbait ekimen aurrera eraman zituzten. Hipodromo ondoko zelaitik Okendo plazara lekualdatu zituzten jarduerak eta gaztetxoentzako erakustaldi bat aurrera eraman zuten.

'Gelatik plazara' sariketan parte hartu zuten Earra! bertso eskolako zenbait kidek

Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen ekimenak geldialdia egin zuen Lasarte-Orian, Buruntzaldea eskualdeko kanporaketa aurrera eramateko. Gaztelekuan aritu ziren hainbat bertsolari gaztetxok, Earra! eskolako zenbait kide horien artean zirela.



Bi bertsolari gaztetxo. TXINTXARRI

Osasun zerbitzu publiko eta kalitatezkoaren aldeko sinadura bilketa egin zuten

LOOPA herri plataformak sinadurak bildu zituen osasun zerbitzu publiko eta kalitatezko batean jarri zuten mahaia eta peto horidun lagunek informazio orriak banatu zituzten ingurutik pasatu zaizkienei. Xedea zein zen ikusita, babestu egin zuten aldarrikapena askok. Lehen aldia

izateko, eragile horretako kideak oso pozik geratu ziren herritarren erantzunarekin.

Doinu zelta eta irlandarrekin girotu zuen Jalgi Duo Didyma bikoteak

Kondaira irlandarretatik hasi eta folk ukituko pieza garaiki-deetara doan errepertorioarekin girotu zuen Jalgi Kafe Antzokia Duo Didyma bikoteak. Oihane Jimeno biolin jotzailea eta Cecilia Ferraz biolontxelo jotzailea batu zituen folk-zelta musikarekiko grinak eta halakoak dira beren emanaldien oinarri. Ordubetez aritu ziren tabernan zeudentzat jotzen, San Patricio eguna bezperatik ospatzen has-teko aukera emanez.



Duo Didyma. TXINTXARRI

Hitezko kantu bat maitasunari

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria eragileak Ali Salem Iselmu idazle sahararra gonbidatu zuen Manuel Lekuona Kultur Etxera, *Amor en la villa del Mar Blanco* izeneko bere lehen eleberria aurkeztera. Kristina Berasain Tristan kazetariak moderatu zuen jarduerak: egilea aurkeztu zuen eta

Herri baten harrotasun erakustaldia

Euskaraz eta emozioz blaitu zuen udalerrria 23. Korrika lasterketak, *Harro herri* lelopean Euskal Herri osoa alderdik alde zeharkatu zuenak. Martxoaren 19an iritsi zen Lasarte-Oriara, gaueko hamarrak aldera, eta arineketan egiteko ordu aproposena ez izanagatik, jendetza atera zen kalera euskararen alde egitera. Aurreko egunetan zenbait girotze jarduera aurrera eramane zuten Muntteri-AEK euskaltegiak, esate baterako, ikastetxeetako haurren Korrika Txikia edota zenbait hitzaldi.



Ezkerrean, Korrika Nagusia, Largoenea kaletik igarotzen. Eskuineak, ikasle talde bat, Korrika Txikian. TXINTXARRI



zenbait galdera egin zizkion, bertaratu ziren ikus-entzuleei hitza eman aurretik.

Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ospatu zuen Kukukak

Okendo plazan erakustaldi bat aurrera eramane zuten Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako ikasleek, Antzerkiaren Nazioarteko Egunaren harira. Aulkiak beteta eta hesien atzealdean jarrita, herritar ugari bertaratu zen antzezle gazteek prestatutakoa ikustera. Taldeka atera ziren erdigunera eta esketx bat aurrera eramane zuten Lehenek aulki bati beldurra ziotela irudikatu zuten, haietako bat ausartu, eta ukitu zuen arte. Arriskurik ez zela ikusita, soka saltoan aritu ziren, pozik. Ondoren, orrialde batzuk atera, eta mikro aurrean jarri ziren, Jon Fosse dramaturgo norvegiarrak idatzitako manifestua irakurtzeko.

Ostadar Inklusioa saileko kideak, bikain Euskadiko eslalom txapelketan

Michelin kirol guneko areto futbol kantxa eslalom zirkuitu bilakatu zen. Gurpil aulkiko Euskadiko txapelketa jokatu zuten eta Ostadar Inklusioa saileko kideak lehen postuetan izan ziren. Urduritasunak alde batera utzi eta parte hartzaileek banakako kanporaketa lehia zein erlojupeko proba egin zituzten, baita taldekako kanporaketa ere. Zirkuitu ezberdinei egin behar izan zieten aurre eta gurpil aulkiekin duten trebetasuna erakutsi zuten guztiek.



Ostadarreko kirolari bat. TXINTXARRI

Mutiloako meategien bidea ezagutzen

Ostadar Ipar Martxako kideak Mutiloa inguruan ibili ziren martxoko irteeran. Ormaiztegitik atera eta behin Mutiloara iritsita, meategien ibilbideko Troi bidea hartu zuten. Inguruaz gozatzeaz gain, meategien historia ere ezagutu zuten. Ostein, berriro Ormaiztegiara itzuli ziren etxerako bidea egiteko, egunpasa ederra eginda.

Hodei Murgiondo herritarra, bigarren Tapia Goanna Pro proban

Hodei Murgiondo herriarrak ederki hasi zuen Fesurfing Kids zirkuitu nazionalako lehia. Asturiaseko Tapia de Casariegon jokatu zuten Tapia Goanna Pro probak hasiera eman zion 2024ko denboraldiari. Lasarteoriatarra 14 urtez azpiko mailan lehiatu eta podiumeko bigarren mailara igo zen.

Beltzak Errugbi taldeko harrobia ederki jardun zen

Beltzak RTko harrobiko taldeek jardunaldia izan zuten maila ezberdinetan. Denetarik emaitzak izan ziren eta 18 urtez azpiko zein 14 urtez azpiko taldeek garaipena eskuratu eta euren txapelketetan aurrera egitea lortu zuten. Horiez gain, Beltzen eskolako txikiek topaketa izan zuten Mutriku. Zarautz RTko gaztetxoekin batera La Unica, Eibar Mutriku RT eta La Rioja taldeen aurka lehiatu ziren 10 eta 12 urtez azpiko jokalariek.

Udalerriko toponimiaren garrantzia ikusarazteko egitasmoa

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta TXINTXARRI aldizkariak lankidetzan egitasmo bat jarri zuten martxan, gure herriko toki izenen garrantzia ikusarazteko: udalerriko zenbait tokiri buruzko artikulu bereziak, galdera eta argazki lehiaketak... Horrek guztiak ardatz izan zuten udalak berak eta Ikermap enpresak ondutako webgunea: <https://toponomia.lasarte-oria.eus/>.



DISEINU GRAFIKOA



INPRENTA
Offset eta Digitala



DISEINU EDITORIALA

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA Zirkuitu Ibilbidea 2 · 1-2 pabilioiak · LASARTE - ORIA

943 370 738

info@antza.eus

www.antza.eus

antza.eus

Goza ezazue jai hauetan

Urte berri on!

Aitor Manso gidariak denboraldiko lehen txapela jantzi zuen Opakuan

Opakuako igoera jokatu zuten Agurainen, Araban. Aitor Manso herritarrak, Joseba Iraolak hitzordura huts egingo zuenaren jakitun, Aiatik Andatzarako igoeran 9. mailako garaipena errepikatu eta sailkapen orokorreko txapela ere jantzi nahi zuen. Mendiko igoeren txapelketako bigarren proban 42 gidari izan ziren irteera puntuan eta aurkariez gain, herritarrak arazo mekanikoei ere egin behar izan zien aurre sari nagusia etxera eramateko.

Kirolaz gaindiko Benjamin mailako torneo

Futbolaz eta elkartasunaz betetako jardunaldi ederra izan zen Michelingo kirol gunekoa. Texas Lasartearra CFk Lengokoak, Añorga, Vasconia, Kostkas, Igeltzi, Sporting de Herrera, Internacional, Mundarro, Martutene eta Antiguoko harrobiko taldeak batu zituzten I. Benjamin txapelketan. Giro ederra izan zen eta harmailak beteta egon ziren egun osoan zehar.

Herriko parte hartzearen egoera, kultur gintzaren ikuspegitik

Berrikuntza Politikoa Esploratzen: Lasarte-Orian parte hartzearen kultura biziberritzeko ikaskuntzak ikerketa proiektuaren barruan, Oreki fundazioak antolatutako mahainguru zikloaren bigarren saioa aurrera eraman zuten. Danok Kideren egoitzan egin zuten eta kultur gintzaren ikuspegitik herriko parte hartzeak bizi duen egoera jorratu zuten gonbidatuek: Nagore Duran, Ketxus Marcos eta Julen Bastera izan ziren.

Redondo eta Murgiondo, Gipuzkoako txapelkun

Eskolarteko banakako Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten Eibarren. Unbeko kirol gunean Gipuzkoako atleta gazteak bildu ziren eta bertan izan ziren Ostadar SKTko kideak zein Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo herritarra lehian. Lasarte-Oriako ordezkariek ederki jardun ziren; guztira, bost domina eta bi laugarren postu eskuratu zituzten. Podiumeko gorenean izan ziren Hodei Murgiondo eta Ostadar SKTko Eider Redondo infantilak eta biak bi

probetan izan ziren garaile. Murgiondok jauzi hirukoitzean (11,25 m.) eta pertika jauzian (2,80 m.) jantzi zituen urrezko dominak. Redondok, aldiz, 150 m. lasterketan (19,09) eta xabalina jaurtikitik (32,99 m.).

Ostadar Inklusioa taldeko Xuban Santin Zagreb-en izan zen lehian

World Boccia Challenger txapelketa lehiatu zuten Kroaziako hiriburuan, Zagreb-en. Espainiako selekzio kideak izan ziren lehiatzen bertan eta horietako bat izan zen Ostadar Inklusioa saileko kirolari Xuban Santin hernaniarra. Bere entrenatzaile Javi Camachok lagunduta debutatu zuen selekzioarekin, nazioarteko proba horretan.

Julio Gonzalez herritarrak 100 urte bete zituen

Udal ordezkarien bisita jaso zuen herritarrak, Palomo Linares elkartean; bertako bazkide izan zen urte luzez. Lore sorta eder bat jaso zuen Agustin Valdivia alkatearen eta Gizarte Zerbitzuetako buru Lourdes Acevedoren eskutik. Extremadurako La Garganta herrian jaio zen Gonzalez 1924. urtean, 24 urterekin ezkondu, eta laneko arrazoiengatik Frantziara egindako bidaia batean, Errenteriako senideak bisitatzea joan zen. Haiek eskaini zioten herri horretako lantegi batean lanean hastea. Gauzak horrela, emaztea eta seme-alabekin batera, Errenteriarra etorri zen bizitzera. Bertan bizpahiru urte egin ostean, Usurbilgo lantokira lekualdatu zuten, eta hori hala izanik, Lasarte-Oriara etorri zen bizitzera.



Julio Gonzalez, erdian. TXINTXARRI

Ostadar Ipar Martxako kideek Asturias ezagutu zuten Pasko Astean

Urtero legez, Ostadar Ipar Martxako kideek Pasko astean kirola eta kultura uztartzen duen bidaia egin zuten; aurtur Asturias aldean izan zen taldea. Gijon eta Sevilla batzen dituen Platako ibilbidean barrena ibili ziren herritarrak eta bertako paisaiaz gozatu ahal izan zuten. Zehazki, Uvieu-Olloniego-Mieres, Mieres-Ujo-Carabanzo, Carisa ibilbidea eta Gumial ibilbidea egin zituzten.

Euskal Herrira ekarri zuten Alex Garcia, Gurutzetako Ospitalean artatzeko

Alex Garcia herrikidea Euskal Herriratu egin zuten azkenean, hegazkin militar medikalizatu batean. Loiuko aireportuan lur hartu ostean Gurutzetako Ospitalera eraman zuten pairatzen ari zen pankreatitisa artatzeko. Bi hilabete eman zituen Tailandiako ospitale pribatu batean ingresatuta.

EH Bildu izan zen alderdi bozkatuena Lasarte-Orian

Botoei erreparatuta, EAJk irabazi zituen Eusko Jaurlaritzarako hauteskundeak bozen %35,22 eskuratuta, nahiz eta eserleku kopuruan EH Bildurekin 27ra berdindu. Lasarte-Orian, aldiz, koalizio abertzalea izan zen bozkatuena (2.772 boto). Parte hartzea %58,72 izan zen, EAEkoa eta Gipuzkoakoa baino lau bat puntu gutxiagokoa (%62,52 eta %61,71, hurrenez hurren).



Botoa ematen. TXINTXARRI

Gaztetxe baten beharraz hitz egin zuten

Saio berri bat aurrera eraman zuten Borobilean elkarteak, *Lasarte-Oriak gaztetxea behar du?* lelopean. Bertaratu zirenek espazioen gainean hausnartu zuten, lau eragiletako kideekin batera: Añorgako Gazte Asan-



Ehunka lasarteoriatar manifestatu ziren. TXINTXARRI

Osasungintza publikoaren alde

Osasun publikoak, oro har, eta herriko osasun zentroak bizi duen egoeratik kezkatuta, Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde (LOOPA) plataforma eratu berriko kideek manifestatzera deitu zituzten herritarrak; ederki erantzun zuten eta udalerriko kaleak bete zituzten.

blada, Orioko Etxeluze gaztetxea, Usurbilgo Elkargunea eta Donostiako Birunda gune autogestionatua.

Taula Xake Klubeko taldeek maila mantendu zuten

Blas de Lezoko lokalean jokaturako partidari Txaturanga gainditu zuen Taula Xake Klubak; Miguel M. Baroja, Juan Cruz Figueras eta Victor Alvaro kideek irabazi egin zituzten euren neurketak eta taulak egin zituzten Juan Ignacio Echeverriak. Nabarmenezkoa izan zen Taula A taldeak hirugarren amaitu zuela liga. Maila horretan lehen urtea izanik, igoera jokatzeko erronka handia izan zen taldearentzat, baina herriko ederki moldatu zen lehen postuengatik lehian.

Palestinan gertatzen ari denaren berri eman zuten

Palestinako egoerari buruz hitz egin zuten Samidoun Euskadi elkarte kide Asier Herranzek, Xirimiri elkarteak. Kontatu zuen iazko urriaren 7az geroztik sortu zutela elkarte, Palestinan gertatzen ari den genozidioaren sorrerari "bide politikoa emateko". Hori hala izanik, azaldu zuen Euskal Herri osoan zehar ari direla jendea kontzientziatu eta horiek gaiarekiko izan dezaketen lerratze jakin batzuekin amaitzeko. Gaineratu zuen *Samidoun* hitzak *konstantzia* esan nahi duela, arabieraz.

Bizipoza hedatu zuten herrian barrena

Bizipoza Eskolaren *Zipriztindu zure ingurua* leloari helduta, horixe egiteko nahia zuten Lasarte-Oriako Bizipoza Elkarteko arduradunek. Euriak lehia egin nahi izan zien arratsaldearen lehen orduan, baina herritarrak aldarrikapenek eta jai giroak blaitu zituzten. Hiru saio aurrera eraman zituzten: lehena ikasketetako haurrekin, bigarrena herritarrekin, eta azkena, eragileekin.

Artez, duintasunez eta sakrifizioz eratutako tradizio baten oinordekoak

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten Kukuka, Erketz EDT, Amaia Gonzalez Caballero akademia eta Semblante Andaluz eragileek, azken urteetan egin zuten moduan: elkarte bakoitzeko dantzari taldeek emanaldiak



Kukuko dantzariak. TXINTXARRI

egin zituzten Okendo plazan. Horrekin batera, Marionela Nuñez dantzari argentinarrek idatzitako manifestua irakurri zuten.

Sinadurak bildu zituzten ibilgailu klasikoaren gaineko hobariaren berrezartzea eskatzeko

Clasicos Lasarte-Oria elkarteak sinadurak bildu zituzten Okendo plazan, Lasarte-Oriako Udalak halako ibilgailuei ezarritako hobaria ezabatzea erabaki zuelako. Erabakia atzera bota zezan eskatzeko atxikimendua eskatu zieten mahaigintzaren pasatu zirenei. Elkarteko kideen ustez, "erabat inkoherentea" da "automobilismo klasikoaren sorlekua izateaz harro dagoen herrian", ibilgailuen mantentzea garestia baita.



Ibilgailu klasiko bat. TXINTXARRI

Jon Martin herritarra, 2030. urtera arte txuri-urdin

Jon Martin futbol jokalaria eta Real Sociedad taldea akordio batera iritsi ziren; bere kontratua 2029-2030 denboraldiaren amaieraraino luzatu zuten. Lasarte-Oriako atzelariak 17 urte ditu eta harrobiko bitxietako bat da.

Lasarte-Oria eta Susegana batu zituen musikak

Elkartruke egitasmo bat aurrera eramane zuten gure herriko Alboka eta Italiako Susegana udalerriko San Salvatore abesbatzak, eta, italiarrak etorri ziren gugana egun batzuk pasa eta kontzertu pare bat ematera. Ongietorri beroa jaso zuten bisitariak udaletxeko pleno aretoan. San Salvatoreko zuzendari Laura Battistella-k eskerrak eman zizkien Albokari eta udalari, jasotako ongietorriagatik eta gogoratu zuten herriko abesbatza 1995ean izan zela lehenengoz bertan.



Udalbatza aretoan egin zieten harrera korista italiarrei. ISAAC FARRE RICO

Pablo Utero herritarra, Halterofiliako Gipuzkoako txapelidun

Gipuzkoako Halterofilia txapelketa jokatu zuten Villabonako Olaederra kiroldegian. Lurraldeko 50 bat kirolari bildu ziren eta Danok Danena taldeko Pablo Utero herritarrek 73 kilo azpiko mailan parte hartu zuten lehian. Abiada (97 kg.) eta Jasotze altzatzeko (115 kg.) probak egin ostean, 288,468 puntu eskuratuta podiumeko gorenera igo zen.

Lasarteoriatar talde batek Euskal Mendizale Federazioko urrezko domina jaso zuen

Euskal Mendizale Federazioak 40 urte baino gehiago federatuta daramatzaten gipuzkoarrak omentzeko ekitaldia egin zuten Tolosako Leidor antzokian. Urrezko oroigarria jaso zuten omen-duen artean, Josu Agirretxe, Txema Contreras, Juanito Egaña, Txomin Otaegi, Alex Tetuan eta Antxon Garin herritarrek izan ziren. Lehen bostak Ostadar Kirol Taldeko Mendi saileko kide

dira eta seigarrena, Hernaniko Mendiriz Mendi Elkartekoa.

Europako txapelketari agur esateko, errelebo bontzea Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek igeriketa egokituko Europako txapelketa modu paregabean amaitu zuen: hirugarren postua eskuratu zuen estilo libreko 34 puntuko 4x100 m. errelebo mistoan. Zubietako igerilariak Iñigo Llopis, Ariel Enrique Schrenck eta Sarai Gascón Espainiako selekzio kideekin estilo libreko 34 puntuko 4x100 m. errelebo mistoa lehiatu eta brontzezko domina jantzi zuen (04.11.87).

Atari zabaleko dantzaleku bilakatu zuten Okendo plaza Musika elektronikoaren gunea bilakatu zen zabalgunea dozenaka herritarrentzat. Ekimenak aurrera egin ahala gero eta gehiago izan ziren musikak erakarritakoak. Jarduera Dantz kultur marka eta proiektu laborategiak Lasarte-Oriako Udalarekin el-

karlanean antolatu zuten ondare artistikoa eta historiako musika elektronikoarekin uztartzea xede duen egitasmoa erdigunera buel-tatu da, topaleku ohikoenera, Okendo plazara.

Gauerdia bitartean house, deep, techno house eta beste estilo batzuetako musikaz gozatu eta haien errimora dantzatzeko parada izan zuten bertaratutakoek. Nahasketa mahaian sei artista aritu ziren Rubio B2B Paolo Solo, Furonia B2B Lila, Kapitaina eta Jonfer, eta haien aurrean gero eta jende gehiago biltzen joan zen saioak aurrera egin zuten heinean.

Liburu bat idaztearen bidaiaz *Dei galdu bat* eleberria argitaratu zuen Idoia Garzes Aldazabal idazle lasarteoriatarrek. 16 urteko bi neraberen istorioak kontatzen ditu, Aminata senegaldarrarena eta Itsaso euskaldunarena. Idazkiaren nondik norakoak azaldu zituzten kultur etxeko hitzaldi aretoan; Udal Liburutegiak antolatu zuen ekitaldia eta Goiatz

Labandibar Arbelaitzek gidatu zuen saioa. 50 bat herritar bertaratuta ziren eta batek baino gehiagok liburua eraman zuten etxera, herritarren bidaia literario horretan murgiltzeko asmoz.



Garzes, aurkezpenean. TXINTXARRI

BTT festa handia izan zen Lasarte-Orian

Eguraldia lagun, goiz pasa ederra egin zuten BTT zaletuek Lasarte-Orian. BTT Rural Kutxa Lasarte-Oria probak Askatasuna parkearen inguruak txirrindulariz bete zituzten goiz osoan zehar. Lehen orduan ilara egon zen Antonio Mercero gunean dortsala eta maillota jasotzeko eta ordua iritsi ahala taldean, bikoteka edo familian irteera puntura gerturatu ziren 350 bat parte hartzaileak e-bike (txirringa elektrikoa) edo bizikleta gainean.

Mary-ren bizitzaren lekukotza Tanttaka Teatroak *Esnearen kolorekoa* antzezlanaren ekarri zuten eta herritar ugari bertaratu zen Aitziber Garmendia, Joseba Apaolaza, Miren Arrieta, Mireia Gabilondo, Jon Olivares eta Jose Ramon Soroizen lanaz gozatzeraz.

MAITE

ESTETIKA ARETOA

zerbitzu mistoak

- Manikura eta pedikura
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoak
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pulsatuarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Solariuma
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

Ondo pasa Eguberrietan!

Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45 • Lasarte-Oria

'La isla de los demonios' liburu argitaratu zuen Txema Pikabeak

"Nerabe gatazkatsuen edota bizitza zaila dutenen mundua izugarri gustatzen zait eta zerbait idatzi nahi nuen beraiei buruz", azaldu zuen Txema Pikabea herriarrak, *La isla de los demonios* eleberria argitaratu zuela jakinaraztean. Bere aurrekoak baino "landuagoa eta aldrebesagoa" dela zehaztu zuen egileak, eta, ezaugarri horiek "arriskua" izan dezaketzen arren, kontakizunari "beste puntu bat" ematen diotela.



Pikabea, liburuarekin. T. PIKABEA

Federiko Krutwig intelektual eta idazlearen ondarea ikusarazten

Euskal intelektual, idazle eta politikariaren bizitzaren bueltako saio bat aurrera eraman zuen Krutwigen Lagunak taldeak; bertako kide Oskar Arantzabal eta Baleren Bakaikoak dinamizatu zuten Antonio Mercero aretoan aurrera eraman zuten hitzordua. Dokumental emanaldi eta hitzaldi bana egin zituzten bertaratu diren dozena bat pertsonari hitza eman eta euren ekarpenak jaso aurretik.

Bi lasarteoriatar hil ziren auto istripu batean, Sorian

Bi ibilgailuk aurrez aurre talka egin zuten SO-20 errepidean eta hil egin ziren bi pertsona, herriarrak biak, 84 eta 90 urtekoak. Beste lau pertsona zauritu ziren ezbeharrean.

Izaguerra administrazioak 20.000 euroko kiniela sari bat eman zuen

Asteroko futbol profesionalaren jardunaldiko hamabost partidaren emaitzak (etxeakoak ala kanpokoak irabaziko duen ala berdindu egingo duten) asmatzea da kiniela jokoaren helburua.

Jokalari batek hamalau emaitza atera zituen eta 20.084,59 euroko saria kobratu zuen gure herriko Izaguerra administrazioan.

Musika, pertsonak artatu eta zaintzeko

Miren Gabirondo Olazabal musikoterapeutak ireki zituen Danok Kide elkartearen XVIII. Balioetan Hezi jardunaldiak, zientzia horren ezaugarri eta erabilera ikus-entzuleekin partekatuta. 50 bat pertsona bertaratu ziren kultur etxeko hitzaldi aretora eta interesez jarraitu zituzten aditu lasarteoriatarren azalpenak.

'Nakba' egunean elkartasuna adierazi zioten Palestinari

Buruntzaldeko Transmaribolloek deituta, dozenaka herritar manifestatu ziren erdigunean barrena, Palestinaren alde. *Bukatzen ez den Nakbaren aurrean Palestina zutik! Buruntzaldeko Transmaribolloak zuekin!* lelodun kartela eskuetan, palestinarren aldeko aldarriak zabaldu zituzten eta Israel egiten ari den genozidioa salatuta.

Euskararen kutxan, gero eta tresna gehiago

Ohi bezala, galdera formatuan planteatu zuten aurtengo Udaltopeko gaia: *Nola erakarri etorri berriak euskarara? Eta, euskaldunok, nola hurbildu etorri berrietara?* Gogoetagai horien bueltako oinarri teoriko, ikerketa eta praktika onak elkartrukatu zituzten parte hartu zuten 300 bat pertsonak.

Euskaraz kantatuta, jositako sarea sendotzen

Xumela koruak egun ederra igarozuen Zarautzen, bertako Montetxio eta Hondarribiako Olagarrro taldeekin batera. 90 bat pertsona batu ziren eta kantu jiran aritu ziren goizean, bapo bazkaldu eta Lasarte-Oriara bueltan etorri aurretik. Euskaraz kantari aritzen diren hiru talde horiek elkarrekin ehundutako sarea sendotu zuten, Zarautzen egunpasa eginda. Egunean zehar makina pieza bat kantatu zituzten: hunkigarrietako bat, Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean*, azken urteetan hildako kideen omenez.

Harkaitz Canorekin izan ziren irakurle txokoko kideak

Ni ez naiz Laboa Mikel Laboa musikari donostiarraren biogra-

fia ilustratua izan zuen hizpide Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak hilabete honetako saioan. Unai Iturriaga eta Joseba Larratze *Josevisky*-rekin batera ondu zuten lan hori Harkaitz Cano herritarrrak eta txokoko kideengana bertaratu zen egindakoari buruz hitz egitera.

Barroko garaiko doinuez eta musika elizkoiaz gozatu zuten herritarrek

Danok Kide Elkarteak antolatutako XVIII. Musika Topaketan barruan kontzertuak eman zituzten Oiasso Kameratak eta Easo Abesbatzako bi taldek, Easo Gazte Abesbatzak eta Easo Kaper Gregorianistak. Brigitarren komentuko nahiz San Pedro parrokiako emanaldietara dozenaka lasarteoriatar bertaratu ziren.

Txokolate jan solidarioa, minbizia duten haurren alde

Lasarteoriatar talde batek laugarrenez aurrera eraman zuen txokolate jan solidarioa, Semblante Andaluz elkartearen eta udalaren laguntzarekin. Jende "ugari" bertaratu zela azpima-



Txokolatea banatzen. TXINTXARRI

rratu zuten kideek eta 870 euro bildu zituztela jakinarazi. Diru hori haurren minbizia ikertzera bideratu zuten. Aipatu egitasmoa Estatu mailakoa da eta Bartzelonako Sant Joan de Deu ospitalarekin egiten dute, elkarlanean.

Oriarte Larrekoetxe institutuan egindako pintaketa matxistak salatu zituzten

Oriarteko Ikama erakundeak salatu zuen pintaketa matxistak egin zituztela Oriarte Larrekoetxe institutuan, laugarrenez. "Haserre eta amorratuta" zeudela adierazi zuten eta ez zirela isilik geldituko eraso horren aurrean.



Lander Martin (erdian, txapelarekin), taldekideak eta lagunak. TXINTXARRI

Emozioz betetako omenaldia

Eguzki Areto Futbola saileko kideek, udal ordezkariak eta lagunak Lander Martin jokariari aitortza egin zioten. 2003an hasi zen areto futboleko eta 21 urtetan egindako lanagatik eskerrak eman eta agur esateko familia, ezagun eta zaletuak batu ziren kiroldegiko kantxan.

Musikaldian parte hartu zuten Udal Musika Eskolako lau ordezkariak

Lasarte-Oriako Udal Musikako irakasle Miren Etxenagusia eta hiru ikasle (Pedro Garcia, Unai Granada eta Hugo Amil) giro ederrean aritu ziren Tolosan eta Ibarran ospatu zuten Musikaldian. Jaialdiko guneetako batean izan ziren gure herriko ordezkariak, Herrikiden, eta akordeoien nahiz abesbatzen topaketetan parte hartu zuten.

Beasainen abestu eta dantzatu zuten

Alboka abesbatzak Beasainen eman zuen kontzertua, bertako Loinatz koruarekin batera eta Erketz Euskal Dantza Taldeko zenbait dantzariaren laguntzarekin. Lasarte-Oriako taldeak zazpi pieza interpretatu zituen aurrena eta Loinatzekin jardun zen gero: *Zure boza* eta *Euskal jokoak* abestu zituzten. "Beasainen oso ondo hartu gintuzten eta ondo atera zen dena", adierazi zuten.

Asier Sagasti garaile, Espainiako Kopako Gasteizko proban

Beterano mailako Espainiako Kopa jardunaldia lehiatu zuten Gasteizen. Lasarte-Oria Kirol Elkartearen judoka Asier Sagasti Condek parte hartu zuen hitzorduan eta M1-M2 kategoriako 100 kilo azpiko txapeldua izan zen.

Txusma Perez Azacetak, Euskal Herriko tontor ederrenen liburu bat

Txusma Perez Azaceta lasarteoriatar eta mendizale adituak liburu berri bat argitaratu zuen Sua Edizioak argitaletxearekin: *Ascensionen a las montañas más bellas*. Liburu horretan Euskal Herri osoko 30 tontor aurkeztu zituen idazleak, "ederrenak" bere iritziz. Mendizaleentzat ezinbesteko diren Orhi, Anboto, Aratz, Txindoki edo Iparla mendiez gain, ezagunak ez diren beste hainbat tontor ere badira liburu horretako protagonistak.

Ander Goenaga, Espainiako parasurfi txapelaren ostadar

Ostadar Inklusioa saileko kirolari Ander Goenagak Espainiako parasurfi txapelketa irabazi zuen Galiziako Nigran herrian. Talde urdin-beltzeko kideak Pro-ne 2 kategorian parte hartu zuen



Goenaga, saria jasotzen. OSTADAR INKL.

beste lau lehiakideren aurka. Bi txanda eta finala jokatu zituzten. Lehen saiakeran ibilbide handiko Angel Luis Curie valladolid-tarrak lortu zuen puntuazio onena. Baina bigarrenetan eta finalean olatuak ederki hartuz, epaileen puntu-kopuru handiena jaso eta lehen postuan amaitu zuen lehiaketa Goenagak.

Bizilagunek bizilagunentzat prestatutako festa

Iñigo de Loiola Bizilagun Elkarteak (ILBE) Udaberri Festa antolatu zuen, bigarrenetaz. Konfinamenduan ehundutako eta estututako harremanak mantendu eta giro alai batean ospatzeko xedez, iaz abian jarri zuten. Orduan ez bezala, aurten beraiek nahi zuten datan, maiatzeko lehen larunbatean, burutu ahal izan zuten. Oriarteko patiotik beraien kalera eraman zuten jaia, baina giroa ingurukoe-tara ere hedatu zuten.



Adin guztientzako festak. TXINTXARRI

Azorteko erromeriara bidean, aldaparik ez

Maiatzeko lehen asteburua egutegian markatuta dute lasarteoriar askok. Hilabeteko hirugarrena Santikurutz eguna da eta horrek erromeria esan nahi du.

Mende erdi barruko balizko Lasarte-Oria

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak eta Semblante Andaluzek elkarlanean ondutako *Lasartoria 2074* herri antzezlanean estraineiko emanaldia egin zuten kultur etxean. Irudikatu zuten mende erdi barruko Lasarte-Orian, klima aldaketaren ondorioak nabari dira, pertsonaiek beroa baitute eta batzuek ez dute euria ezagutzen. Kapitalismoa amaitu eta Erdi Aro Berrian, nazioarteko inbertsio funts handiak dira munduaren jabe eta etsipena da nagusi.



Estreinako emanaldiko uneetako bat. TXINTXARRI

Ohitura bezala, ondorengo igandean burutu zuten, baselizaren aurrealdean, Ttakun Kultur Elkarrekin Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean antolatutako festa. Eguraldi iragarpena ez zen erabat baikorra, baina ez horrek ezta autobus faltak ere ez zuten jendea etxean geldiarazi.



Ermita, jendez lepo. TXINTXARRI

Itxaropen bila dabiltzan pertsonaien topalekua

Khea Ziater antzerki taldeak *La sed del minotauro* antzezlanean emanaldi elebiduna egin zuen Manuel Lekuona Kultur Etxean.



'La sed del Minotauro'. TXINTXARRI

Il labirinto tabernan Duque eta Enzo elkartuko dira. Lehenak edariarekin arazoa du, hein batean emakume bat ahaztu nahi duelako, bigarrenak, berriz, maitatuko duen emakume bat bilatzen du, eta hori, Lisa izatea espero du. Teseo27 ezizenarekin Ariadna24 ezagutu du eta aurrez aurre lehenengoz elkar ikusteko hitzordua egin dute bere tabernan. Zoriarekin eta zortzarekin borrokan dabiltzan Beni eta Jani ere bertaratuko dira. Taberna eszenario bakarra bada ere,

proiektatutako irudien bidez edo atrezzoarekin osatutako eszenarioetan kontatzen dira pertsonaien istorioak.

Bola eta tokako Gipuzkoako txapelketak Lasarte-Orian erabaki zituzten

Michelingo kirol guneko bolotokian hitzordu garrantzitsua jokatu zuten, Gipuzkoako bola joko eta toka txapelketa. Eremuko bolari eta toka jokalaririk hoberenak bildu ziren, horien artean, Josu eta Unai Lasa herritarrak. Giro ederrean txapelak eskuratzeko lehiatu ziren. Bola jokoan Rosa Santos eta Itoiz Alustiza izan ziren garaileak; tokan, aldiz, Martxeli Kanflanka eta Jose Antonio Calvo.

Talbot markako auto klasikoak herrian barrena ibili ziren

Ehun urte bete ziren Talbot etxeko auto batek San Sebastian saria irabazi zuenetik, eta, urtemuga berezi hori oroitze aldera, marka britainiar-frantses horietako zenbait ibilgailu klasikok

gure herria zeharkatu eta Lasarteko zirkuitua zena ezagutu zuten Geldialditxo bat egin zuten Antonio Mercero gunean egitasmoa zertan den azaltzeko.



Auto klasiko bat. ISAAC FARRE RICO

Dantzari gazteek beren mugimenduak erakutsi zituzten jendaurrean

Hilabetetan ikasitakoa islatzeko zenbait dantza prestatu zituzten Udal Musika Eskolako ikasleek, eta senide eta lagunen aurrean erakutsi zuten beraien trebezia. Parte hartuko zuten dantzari guztiak elkarrekin atera ziren eszenatokia lehen piezan, eta ondoren, adinarean araberako taldeak txandaka bueltatu ziren, hiruna dantza eskaintzeko. Merezitako txalo zaparradarekin eskertu zieten ahalegina ikus-entzuleek.

Udaberri ospatu zuen Aterpea merkatarien elkarteak

Lasarteoriatarrak euren komertzioetara erakarri eta herria bizirik mantentze aldera, Udaberriko Festa aurrera eraman zuen Aterpea merkatarien elkarteak. Programaren erdia pagotzek eta eskaintza bereziek osatu zuten, eta beste erdia, dibertitzeko ekimenek. Ormazabal loradendak, esaterako, Alpargateriko erromeria aurrera eraman zuten saltoki ondoko plaza txoan.

pikabea
ASEGURU ARTEKARITZA

Aseguru mota guztiak. Eskatu aurrekontua!

Ondo pasa Gabonetan eta urte berri on!

Uzturre Plaza, 8
Lasarte-Oria
Tel.: 943-37 11 18
pikabea@pikabea.eus
www.pikabea.eus

txintxarri
Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

Zure iragarkia jarri nahi duzu? Jar zaituz gurekin harremanetan!

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK:
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

SEMBLANTE ANDALUZ

Gure Rocio-ko Ama Birjinaren kofradiak 2025 zoriontsua opa dizue

Golf plaza 2, Lasarte-Oria - Tel. 943-36 36 99

Zentzumenak dantzan, Zabaletako jaietan

Ikusi, entzun, usaindu eta das-tatzeko moduko festak aurrera eramane zituzten auzo horretan, hilabete hasieran. Teresa Sorgiña jaitxi aurretik ekin zioten egitarauari eta haurrak izan ziren aurreneko ospakizun egunetako protagonista nagusiak. Asteburukoak izan ziren programako egun mugituena eta Zabaletara igo ziren guztiek ederki pasa zuten kontzertu, jolas, otordu, kirol ekitaldi eta bestelako ekimenetan.



Teresa Sorgiña. TXINTXARRI

Ostadarreko taldeentzat, txanponaren bi aldeak igoera faseetan

Erregionalen Ohorezko Mailara eta Jubenilen Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketa faseak jokatuz zituzten Ostadarreko taldeek. Batean kale eta bestean bale egin zuten, nagusiek ezin izan zutelako Aloña Mendi garaitu eta kategoriaz igo. Harrobikoek, berriz, Urola mendean hartu eta denboraldi osoan amestutako helburua erdietsi ahal izan zuten.

Lizar Begoñarekin solastu ziren Irakurle Txokoko eta Transmaribollo kolektiboko kideak

Lasarte-Oriako Transmaribollo kolektiboak Irakurle Txokoa-rekin elkarlanean antolatuta, solasaldi literarioa egin zuten Antonio Mercero aretoan. Dozena bat lagun elkartu ziren Lizar Begoña idazlearekin *Mundu zitalaren kontra* lanaren gainean aritzeko.

Mirentxuko Trinketea biziberritu zuten

Herriko gazte talde batek frontenis txapelketa antolatu zuen kirol azpiegitura horri bizia emateko. Hamasei bikotek parte

hartu zuten; Iker Artetxek eta Mikel Gonzalezek jantzi zituzten txapelak. Giro ederrean aritu ziren goiz eta arratsalde eta herri-ritar ugari bertaratu ziren partidez gozatzera. Antolatzaileak asko poztu zituen euren egitasmoak izandako harrerak.

PSOE izan zen alderdi bozkatuena

Europako Parlamenturako hauteskundeak egin zituzten eta botoen %100 zenbatuta, PSOE izan zen alderdi bozkatuena udalerrian, bozken %35,6arekin (2.503 botopaper). Duela bost urteko bozekin alderatuta nabarmen igo zen abstentzioa, hamazazpi puntu; hautetsontzietara deituta zeuden bizilagunen erdiak baino gehiago (%52,4) ez ziren joan.

Carmen Atalaya Revilla herritarrek 'Gracias' liburua argitaratu zuen

Txakur hezitzailea, animatzaile soziokulturala, Pedagogia ikaslea... bere ogibide eta ezagutzei berri bat gehitu zien Carmen Atalaya Revillak (Lasarte-Oria, 1973): egilea. Bere bizipenetatik abiatuta, *Gracias* liburua idatzi zuen, barnean duen "aberastasuna" eta bizitza polita dela zabalteko.

'Mikroipuinak' liburua aurkeztu zuen Idoia Torregaraiak

Egunerokotasuneko uneetatik "istorio politik" sor daitezkeela sinetsita, *Mikroipuinak* liburua argitaratu zuen martxoan Idoia Torregarai Martija kazetari, gidoigile eta umoregile usurbildarrak, Elkar argitaletxearekin eta Patxi Huarte *Zaldieroa* komikigilearekin elkarlanean. Lasarte-Oriako Udal Liburutegiak kultur etxeko hitzaldi aretora gonbidatu zuen egilea lan horri buruzko nondik norakoak azal zitzaizkien. Bertsolari baten pare jardun zen, aurkezpen ekitaldiaren dinamizatzaile Goiatz Labandibar Arbelaitzek botatako puntuei jarraituta.

Gailu digitalen erabilera goiztiarraz hausnartzen

Landaberri Guraso Elkarteak gonbidatuta, ongizate digitalean aditua den Telmo Lazkano izan zen Oriarte-landaberri ikastetxean. *Gazteak eta gailu digitalak. Zeren aurrean gaude?* hitzaldia eskaini zuen, eta bera entzutera joan ziren euren seme-alabak

sakelako telefonoaren edota orokorrean pantailen erabilera goiztiarrek bezala kezkatuta dauden hogeitau guraso.

Egunerokotasunaren akrobatak

Emakume Sortzaileen I. Jardunaldia aurrera eramane zuten Ihitten elkarteak, Antonio Mercero aretoan. Herritarren jakin-mina piztu zuen ekimenak eta dozenaka bertaratu ziren gunera. Hizlariak esan dutena entzuteaz gain aukera izan dute euren hausnarketak plazaratzeko. Bost emakume sortzaile lasarteoriatar gonbidatu zituzten: Aintzane Usandizaga, Bea Egizabal, Nora Izagirre, Ainhoa Negeruela eta Karmele Salsamendi. Ihitteneko kide Idoia Garzesek gidatu zuen solasaldia.

Izar Beltzak torneoa, oroimenetik omenaldira

Beltzak Errugbi Taldeak gogotik ospatu zuen bere 40. urteurrena, ekimen berezi ugari aurrera eramanda. Errugbi eskolako txikiak eta euren senideek eman zioten hasiera jardunaldiari. Euripean,



Norgehiagoketako bat. TXINTXARRI

joko ezberdinak egin eta neurketak berezia jokatu zuten; haurrak helduen aurka. Indarrak berreskuratzeko hirugarren denbora ere izan zuten. Arratsaldean Izar Beltzak oroimenezkoaren txanda izan zen. Atletico San Sebastian, Huescako Quebrantahuesos eta Beltzak Lasarteoriatarren ZRT taldeek hiruko torneoa jokatu zuten eta azken horrek irabazi zuen.

Kirolaz gain, oroimen eta omenaldirako tarte ere izan zen torneoa amaitzean. Txalaparta, musigitarra eta kutxa doinu bitartez, Beltzak taldeko sortzaile, jokalarik eta zuzendari izandako Aitor Urangaren eta taldeko lehen kapitain eta zuzendari-



Gazte asanbladako kide ugari, prentsurrekoan. TXINTXARRI

Gazte asanblada aurkeztu zuten

Eragile ezberdinetako herriko gazteak elkartuta sortu zuten LOGA Lasarte-Oriako Gazte Asanblada. Espazioen problematikari irtenbide eman asmoz batu zirela azaldu zuten ekimena aurkezteko prentsurrekoan.

tzako kide zen Jorge Perez *Gotxo* izan zituzten gogoan eta euren senitartekoei lore sorta bana eman zizkieten.

Narrea Furundarena, Euskadiko txapeladun

Lasarte-Oriako atletik Euskadiko txapelketari aurre egin zioten, Durangon. Herriko ordezkariak hainbat finaletan izan ziren lehian eta bik domina jantzi zuten: Narrea Furundarenak, urrezkoa, jauzi hirukoitzean eta Yeray Veronizek, zilarra, 100 metroko lasterketan.

'Ibaiaren beste aldean' erakutsi zuten herritarrei

Oriarte BHI institutuko ikasleek Zinema (h)abian programan parte hartu zuten; horren bitartez, *Ibaiaren beste aldean* filma ekoiztu zuten. Bartzelonan egin zuten aipatu lanaren estreinaldia eta Lasarte-Oriara ekarri zuten gero, egindakoa herritarrei erakutsi asmoz. Mercero aretoan batu dira lasarteoriatarrekin, eta ikus-entzunezkoaren nondik norakoak azaldu zizkieten. Prozesuak iraun bitartean izan dituzten zailtasunak nabarmendu zituzten, horien artean, ohartu zirela talde lanak erabakiak taldean hartzea dakarrela, eta "askotan" zaila izaten dela hori.

Pablo Barriok '2074' antzerki liburua argitaratu zuen

Gaur egungo Euskal Herriko kezka eta gogoetetan ardatzuta-

ko antzerki distopikoa kaleratu zuen Pablo Barrio idazle lasarteoriatarrek: *2074*. Susa argitaletxeak EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearekin batera sortutako Ganbila bildumako 25. obra da hori. Antzerki liburu hori ontzeko "umorea, begirada nostalgikoa eta hitz bidezko jolasa" erabili zituen egileak, Ganbilan parte hartzen duen Gaizka Sarasolaren arabera. "Begirada nostalgiko hori oinarri, nortasun handiko pertsonaia berezi eta maitagarriak" sortu zituen Barriok.

Eztarrietatik, 'Biotzetara'

Lasarte-Oria eta Boise (Idaho, AEBak) senidetu zituen musikak eta euskarak. Egunpasa polita egin zuten hemengo Xumela eta hango Biotzetik koruek; Getarian eta Pasaian izan ziren, besteak beste. Gero herrira etorri ziren eta emanalditxo polita egin zuten



Bi koroak, senidetu. TXINTXARRI

Okendo plazan, Ttakun Kultur Elkarteko ordezkarien harrera jaso ostean. Amaitzeko, pinxo-afaria egin zuten Ttakunenea elkartearen.

Beñat Telleria, II. mailako Euskal Pentatloiko garaile

II. mailako Euskal Pentatloia irabazi zuen Beñat Telleria herritarra, gizonezkoen kategorian. Ez zen lehen aldia izan herritarra proba horretako podiumera igo zena, Julen Gabirondo urnietarrarekin batera Binakako Euskal Pentatloia irabazi baitzuen iaz.

Elkartez elkarte, bertsotan

Lasarte-Oriako Transmaribibolo Kolektiboak antolatuta, bertsopoteo transfeminista aurrera eraman zuten. Ttakunenea elkartearen batu ziren eta lehen tragoarekin batera, Amaia Agi-



Bertsopoteoaren hasiera. TXINTXARRI

re eta Maider Arregi bertsolariak lehen lanak egin zituzten. Ibilbideko hurrengo geltokira abiatu aurretik jolas bat proposatu zieten aurrean zituzten hogeita bat lagunak: beraiek puntu bat abestu eta horren erantzuna den hitza asmatzea, alfabetoaren

Sorgindutako herria, jaietan murgilduta

San Pedro Jaiak eta Sorgin Jaiak ospatzen hasi ginen hilabete amaieran, urtero bezala, blusa koloretsuak armairutik atera eta soinean jantzita. Festa egun ederrak izan ziren eta gogotik gozatu zuten lasarteoriatarrek. Makelur antzerki taldea eta Xumela korua omendu zituzten udal ordezkariak eta jai alternatiboen antolatzaileak, hurrenez hurren. Une gogoangarri askoz gehiago izan ziren bost egun horietan zehar.



Herritarra, zoriontsu, helduen txupinazoan. TXINTXARRI

hurrenkera jarraituta. Gainerako geltokietan ere antzekoa izan zen dinamika eta arratsalde bikaina igaro zuten parte hartzaile guztiek.

Maialen Chourrautek zilarrezko domina jantzi zuen Krakovian

Eslalom olinpikoko Munduko kopako hirugarren jardunaldia jokatu zuten Krakovian (Polonia). Maialen Chourrautek herritarra parte hartu zuen lehiaketan eta finalera sailkatzeaz gain, bigarren postua eskuratu zuen.



Maialen Chourrautek, podiumean. RFEF

Ostadarreko Olaia Laboa eta Odalys Caceres, Hondartzako boleiboleko txapeldun

Hondartzako Boleiboleko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten Ostadar SKTko bi bikotek: Olaia Laboa-Odalys Caceres eta Ruben Mendoza-Alex Acuriola. Laboa eta Caceresek Bera Berako bikotearan aurka jokatu behar izan zuten final handia eta lan bikaina egin ostean garaikurra altxatzea lortu zuten. Mendozak eta Acuriolak ere jokatu zuten euren kategoriako partida erabakigarria baina ezin izan zuten irabazi.

Donostia Arraun Lagunak, Gipuzkoako txapeldun

Gipuzkoako traineruak Hondarribian bildu ziren lurraldeko bandera jokatzeo eta zenbait herritar kide dituen Donostia Arraun Lagunak-ek irabazi zuen. 11.16,08ko marka eginda gailendu zen. Tolosaldea bigarren izan zen 9,30 segundora eta Donostiarra, hirugarren (11.27,12).

Xabat Martin txirrindulari gazteak denboraldi ederra egin zuen

Lasarte-Oriako Buruntzazpi txirrindularitza eskola desagertu zenetik, udalerriko gazteek inguruko herrietako eskoletan garatzen dute euren zaletasuna. Xabat Martin da horietako bat. Herritar gazteak emaitza paregabeak lortu zituen 2023-2024 denboraldian; eskolarteko infantil mailako Gipuzkoako zein Euskadiko txapelduna izan zen.

Iñaki Garcia, berriro ere Squash txapelketako irabazle

Lasarte-Oriako Squash txapelketa sozialeko finala jokatu zuten iazko txapelduna izan zen Iñaki Garcia eta Iker Cañedok. Irabazlearen garaikurra Garcia eraman zuen etxera.

Antzezle bikainak direla erakutsi zuten

Kukuka eskolako lagunek 22. Antzerki eta Dantza astea aurrera eraman zuten. Aurreneko egunean desfile alai eta koloretsua

aurrera eraman zuten erdigunean barrena, eta gainerako egunetan, ikasturtean zehar entseatu eta prestatutakoa erakutsi, diziplina artistiko desberdinetan.

Emakumeen Aldarria aurkeztu zuten San Pedro parrokiaren

Usurbil eta Lasarte-Oriako hogeita hamabost bat emakume kristau elkartu ziren parrokiako lokalean. Duela urte eta erdi emakume talde bat sortu zuten, Donostialdean Revuelta de las Mujeres en la Iglesia mugimendua Gipuzkoara ekartzeko. Horrek emakumeen berdintasunaren alde egiten du Elizan.

Omenaldia eta Buruntzaldea IKTko kideek podiuma, Lasarte-Oria Sarian

230 bat igerilari batu ziren Maialen Chourrautek irabazteko, 33. Lasarte-Oria Sarian. Zortzi taldeetako -Hernani KE, Gaude, Elkar 64 Natation, Igartzeta IKE, Atletico San Sebastian, Amaya CD, Ordizia KE eta Buruntzaldea IKT- kirolariak izan ziren herriko igerilekuan, nor baino nor gehiago. Saio hasieran momentu hunkigarria bizitu zuten bertaratutakoek, izan ere, igeriketa taldeko Itsaso Tolosa eta Borja Apeztegia omendu zituzten taldekideak, baita Agurra dantzatu ere. Bien azken denboraldia izan zen entrenatzaile gisara.



Talde argazkia. AITZIBER BERASATEGI



urte berri zoriontsua opa dizuegu!

ZUBIETA MOTOR

- Mekanika eta karrozeria konponketak
- Auto erdiberri, erabili eta OKM salmenta



Oria Etorbidea, 4 6. lokala - LASARTE-ORIA - Tel: 943-36 00 09 - Faxe: 943 37 26 89 - zubietamotor@centrauto.es

2025

URTARRILA

A ₁	A ₂	A ₃	O ₁	O ₂	L _A	I _G
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

OTSAILA

A ₁	A ₂	A ₃	O ₁	O ₂	L _A	I _G
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28		

MARTXOA

A ₁	A ₂	A ₃	O ₁	O ₂	L _A	I _G
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

APIRILA

A ₁	A ₂	A ₃	O ₁	O ₂	L _A	I _G
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

MAIATZA

A ₁	A ₂	A ₃	O ₁	O ₂	L _A	I _G
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

EKAINA

A ₁	A ₂	A ₃	O ₁	O ₂	L _A	I _G
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

UZTAILA

A ₁	A ₂	A ₃	O ₁	O ₂	L _A	I _G
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

ABUZTUA

A ₁	A ₂	A ₃	O ₁	O ₂	L _A	I _G
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

IRAILA

A ₁	A ₂	A ₃	O ₁	O ₂	L _A	I _G
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

URRIA

A ₁	A ₂	A ₃	O ₁	O ₂	L _A	I _G
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

AZAROA

A ₁	A ₂	A ₃	O ₁	O ₂	L _A	I _G
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

ABENDUA

A ₁	A ₂	A ₃	O ₁	O ₂	L _A	I _G
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				



Exinixri

Alex Saleta fitxatu zuen VRAC Quesos Entrepinares taldeak Errugbi jokalaririk lasarteoriatarra Espainiako selekzioarekin Ozenian zen bitartean, VRAC Entrepinares taldeak bere fitxaketaren berri eman zuen. Ordizian urtebetez jokatu ondoren, herriko hirugarren leerrokoak hamahiru aldiz Oho-rezko Mailako irabazle izan den eta titulua duen Valladolideko taldearekin bat egin zuen 2024-2025 denboraldian.

Harrera beroa egin zieten uda herrian igaro zuten hiru gazte sahararrei

Udal ordezkariak harrera egin zieten udako bi hilabeteak Lasarte-Orian igaro zituzten gazte sahararrei: Hassanna, Jalil eta Ahmed. Isaak begiralea eta harrera familietako kideak ere bertan egon ziren eta, opariak jasotzeaz gain, udal ordezkariekin hitz egin zuten bizipenaz. Udalak 10.000 euro bideratu zituen programa horretara. Ondoren, Ttakun Kultur Elkarte-ko Udako txokoetako haur eta begiraleen txanda izan zen. Aurreskua dantzatu eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots paila-zen *Iritsi da eguna* kantatu zieten, baita opari bana ere.



Harrera ekitaldietako bat. TXINTXARRI

Sanpedroekin "pozik" zegoen udala

Igaro berri ziren San Pedro Jaien balantze ona egin zuen udalak. Iragarritako guztia "ondo joan" zela nabarmendu zuten Agustin Valdivia alkateak eta Festak saileko arduradun Txus Alonsok. Halaber, poliziak 137 esku hartze erregistratu zituela eta Gurutze Gorriak, berriz, hamabost.

Gaztetxoak bertsoekin jolasean aritu ziren, Ttakunenea elkarteak

Udaberriko bertso jasa, bat-bateko jolasa saioa aurrera eramane zuten uztail hasieran Ttakuneean. Lierni Rekondo eta Iker Ormazabal *Tturko* bertsolariak diziplina hori zertan den azaldu zieten ekimenera bertaratu ziren haurrei. Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak lankidetzan antolatutako jardueran ikus-entzule ez ezik, partaide aktibo ere izan ziren gaztetxoak.

Herriko atletak Espainiako txapelketetan

Lasarte-Oriako atletak 18 urtez azpiko eta Federazioen arteko Espainiako txapelketetan parte hartu zuten. Lehenengoan, Oinatz Almagro eta Iraia Alkorta izan ziren, bigarrenen, berriz, Euskadiko selekzioarekin izan ziren Naroa Furundarena eta Yeray Veroniz. Jauzi hirukoitzean bigarren postua eskuratu zuen Furundarenak, Veroniz seigarren izan zen 4x100 m. errelebo proban, eta ez ziren finalera sailkatu ez Alkorta 100 m. lasterketan ezta Almagro ere jauzi hirukoitzean.

Nahia Zudairek Zaragozako Hiria Nazioarteko trofeoa lehiatu zuen

Parisko Paraolimpiar Jokoak prestatzen ari zen zubietarra eta 100 m. libre proban egin zuen igeri. Sailkapen proban 01.11,43 marka egin zuen, eta finalean, aldiz, 01.10,63. Probako bigarren eta bere mailako lehen sailkatu zen.

Xabat Martin bederatzigarren izan zen Espainiako txapelketan

Uztailaren 5ean Avilesen (Asturias) jokatuako errepideko Espainiako txapelketan Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuen eta tropel nagusian helmugaratu zen. Bederatzigarren amaitu zuen lehia Andoaingo Txirrundulari Eskolako kideak. Horrela amaitu zuen denboraldi arrakastatsua herriko txirrundulari gazteak, infantil mailako bai Euskadiko bai Gipuzkoako txapeldun izan baitzen eta parte hartu zuen lasterketa gehienetan lehen postuan amaitu.

Santa Ana pintxoak, jaiaren aurrekari

Arima, Buenetxea, El Punto, Herriko Etxea eta Hiru Aldeta ostalaritza establezimenduek

elaborazio bereziak egin zituzten Santa Ana egunaren atarian. 3 euroren truke pintxo goxoa jateko aukera izan zuten herritarrek. Sukaldariak bi osagai erabili behar zituzten nahita nahi ez jakiak elaboratzeko: bakailaoa eta piperrak. Hortik aurrera, parte hartzaileen irudimen eta esku onaren arabera izan ziren. Hamarkada bat darama Aterpeak ekimen hori antolatzen eta harrera ona izan ohi du.

Herriko gorabeherak, zirikatuz eta umorez

Lasarte-Oriako eguneroko kontuak dira Santa Ana eguneko parodiaren oinarria. Manuel Sagardia herriarrik 1951n berreskuratutako ospakizuna ia urtero aurrera daramate, udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta. XX. mende hasieran sortu zen, mozkortuta zeuden herritar batzuek Santa Ana karkaban zeuden ardo zahagi batzuei su eman zieten. Gertakari hori oinarri hartuta bizilagunak herri epaiketa antzestu bat aurrera eramaten hasi ziren urtero: bi alprojari egozten zizkioten



Akusatuak, sutan. TXINTXARRI

herriko gauza txarrak urtero eta sutan kiskaltzen zituen deabru gaizto batek. Horrez gain, Santa Ana berak, San Joakinek eta Basajaunek ere parte hartzen zuten.

Meza egin zuten Karmengo Amaren omenez

Ohiko festak ospatu ez bazituzten ere, urtero bezala, Oriako bizilagunek gogoan izan zuten hilaren 16an Karmengo Ama Birjina. Juan Luis Murua eta Felix Garitano apaizek gidatu zuten elizkizunean, udal ordezkariak eta herritar mordoxka bat izan ziren. Azken hamar urteetan La Esperanza auzo elkarteak antolatu



Juanlu de la Mata, iazko krosean helmugaratzen. TXINTXARRI

Juan Luis de la Mata hil zen

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarte-ko zuzendaritzako kide eta sortzaileetako bat zen. Taldekide batekin mendian lasterka zebilela gertatu zen ezbeharrak. Kirolari modura, hainbat mendi probatan parte hartu zuen eta errepideko beste askotan ere.

izan ditu egun horren inguruko jarduerak, udalaren eta zenbait eragileren laguntzarekin. Aurten, ordea, meza besterik ez zuten aurrera eramane.

Bazkideen eguna ospatu zuen Lasartearra elkarteak

Ospakizun berezi batekin, San Inazio egunean ospatu zuen bazkideen eguna Lasartearra elkarteak. Hasteko, luntxa eta hildako bazkideei omenaldia egin zituen. Ondoren, trikipoteoa egin zuten herrian barrena, eta azkenik, bazkaria Erribera kaleko egoitzan. Udalerriko elkarte historikoetako bat da Lasartearra, iaz 50. urte ospatu zituen askotariko jarduerak burututa.

Jon eta Mikel Begiristain Trinketeko paletan, txapeldun

Jon eta Mikel Begiristain herritarrik Trinketeko Klubaren arteko Gipuzkoako txapelketan lehiatu ziren larruzko pala modalitatean eta, iaz bezala, txapeldun izan ziren aurten ere. Aitor Bora eta Jon Zumeta Errepalako taldekideak izan zituzten aurkari, eta neurketa borrokatua izan arren, 34-40 gailendu ziren.

Ekaina izan zen TXINTXARRI-ren atari digitaleko hilabete oparoena

Urtero bezala, ikasturte amaieran TXINTXARRI aldizkariako lantaldeak bere atari digitalaren trafikoa aztertu zuen. Datuak erregistratzen hasi zenetik eman-

korrenetako bat izan zen, ia aurrekoak bezainbeste. Hilabetea amaitzeko zortzi egun faltan, 326.191 orri bisitatu zituzten 57.714 erabiltzailek, urtebete lehenagoko datuak 334.246 eta 68.871 ziren. Ekaina izan zen trafikoa gehien izan zuen hilabetea: 12.503 erabiltzailek 62.374 orri bisitatu zituzten kurtso osoko bisiten ia bostena-, 26.996 saio hasita. TXINTXARRI hilabete batean inoiz erregistratu dituen datu onenak izan ziren.

Hiru ordu 1.000 euro gastatzeko

Aterpea merkatari eta ostalarien elkartearen *Eskuratu 1.000 euro* kanpaina irabazi zuen Ricardo Rodriguez Jorge mexikarrak hiru ordu izan zituen 1.000 euro gastatzeko. Zazpi bat hilabete zeramatzan herrian bizitzen eta Santana informatika dendan bete zuen txartel irabazlea. Or-



Sariduna, eskuinean. TXINTXARRI

denagailua konpondu eta erosketa txiki bat egin izana erren-tagarri izan zitzaion, zalantzarik gabe. Saltoki eta produktuen zerrenda prestatu zuen, azken zentimora arte doitua, baita noiz-nora joan erabakita ere. Horretan lagungarri izan zuen Aterpeak jarritako kotxe dotorea.

Yolanda Donisek 'Zazpi gurutzeak' lehen eleberria kaleratu zuen

Yolanda Donis Manterolak zazpi urtean egindako lanaren emaitza da *Zazpi gurutzeak*, lasarteoria-tarraren lehenengo eleberria. Liburuak irakurtzeko zaletasuna eta ohitura badu eta idaztea arakatzeko irrikak bultzatuta erabaki zuen lan horri ekitea. Hasieran "erronka handia" izan zen, baina "oso pozik" zegoen prozesuarekin eta emaitzarekin. Istorioak bi denbora lerro ditu eta horietako bakoitzak bere protagonista. Batean, 1960ko



Liburuaren egilea. YOLANDA DONIS

hamarkadan Euskal Herri-tik Idahora alde egiten du emakume batek, eta ia mende erdi geroago, haren alabak kontrako bidea egingo du iragana arakatzeko beharrak bultzatuta.

Santa Ana azoka tradizionalak egin zuten 39. aldiz

Santa Ana egunaren aurreko igandean artisautza azoka eta pintxo ibilbidea gauzatu zituzten, ohi bezala. Egun eguzkitsua izan ez bazen ere, artisautza azokako postuetan barrena ibiltzeko aproposa izan zen. Ia lau hamarkada ditu, eta azken urteetako eskema jarraituta, Okendo plazan ondasunak ziren nagusi: bitxiak, telazko poltsak, txalapartak, oinetakoak, arropa... eta Mercero plazan, berriz, jatekoak: ogia, ez-tia, hestekiak, gazta... Arkupeetan, aldiz, ehoziri lane-

Txoko eta kanpaldietan gozatu zuten gaztetxoek

Ttaku Kultur Elkarteak hiru hamarkada pasatxo daramatza herriko haur eta gaztetxoentzako euskarazko aisialdia programak aurrera eramaten, baita udaran ere. Udako Txokoek eta udalekuek programa erakargarri eta hezitzailea dute oinarri, bizitzan oso balioak jorratzen dituzte, hala nola, emozioen lanketa edo kulturartekotasuna. Herri-tik kanpo, berriz, kanpaldiak egin dituzte Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan barrena.



Besteak beste, sanferminetako entzierroa egin zuten. TXINTXARRI

tan aritu zen emakume talde bat eta egurra lantzen zenbait zurgin.

Lurhats taldeak 'Sendagai' lehen diskoa osatu zuen

Julen Basterra eta Iban Nikolai bikoteak osatutako Lurhats taldeak *Sendagai* izeneko lehen diskoa argitaratu zuen. Gitarra klasikoa eta didjeridua jotzen duten bi musikarien harremanaren lehen emaitza zuzenean defendatu zuten sei kontzertutan. Musika medizina dela sinetsita, erabilera hori berreskuratu nahi dute egiten dutenarekin.



Nikolai eta Basterra. TXINTXARRI

Eider Redondo atleta Espainiako txapelketan seigarren izan zen

Ostadar SKTko Eider Redondo atleta gazteak 16 urtez azpiko Espainiako Txapelketan parte hartu zuen. Hexatloia proban lehiatu zen eta seigarren amaitu zuen. Sei probari aurre egin behar izan ziren: 100 m. hesi, altuera, pisu jaurtiketa, luzera jauzia, xabalina jaurtiketa eta 600 m. lasterketa. 100 metro hesi eta luzera jauzian lehen postuetan

izan zen Ostadarreko kidea; hirugarren (15,70) eta bigarren (5,49m.) izan zen hurrenez hurren. Guztira 3.422 puntu batu zituen.

Herriko taldeek ezin izan zuten Donostia Cupeko finalera iritsi

Texas Lasartearra FC eta Ostadar SKT taldeek ezin izan zuten Donostia Cupeko finalerara iritsi. Multzoko fasea amaituta, herriko ordezkari gehienek Europa League jokatu zuten, eta talde bakarra izan zen Champions League lehiatzen, Ostadar SKTko B15a, hain zuzen ere. Lehen kanporaketan, neurketa ondo borrokatu bazuten ere, Tolosak kanpoan utzi zituen. Gainerako taldeek ere ez zuten zorte hobirik izan, final zortzirenetan edo lehenago kaleratu zituzten euren aurkariek.

Mari Jose Martinen margolanak, Jalgin ikusgai

Jalgi Kafe Antzokia kulturaren topagune ere bada eta horren erakusgarri da Mari Jose Martin *Alma Guida* artista lasarte-riarrak jarri zuen erakusketa. Bere zenbait margolanek askotariko paisaiekin apaindu zituzten tabernako hormak: itsasoa, hondartzak...

Gidabaimena euskaraz ikasteagatik saria jaso zuen Iruñe Erauskin

Iaz gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz atera zutenen herriko zozketaren garailea izan zen Iruñe Erauskin. Hori ordaintzeko erabilitako 400 euroak itzuli zituzten. Egitasmoa Buruntzaldeko sei udalek aurrera daramate 2009. urtetik, eskualdeko au-

toeskolekin lankidetzan, herri-tarrei eta bereziki gazteei jakinarazten die gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera dutela eta hala egiteko pizgarria eman.

Kulturaz bete zituzten udalerriko kale eta plazak

Kultur agendako jardueren topaleku Manuel Lekuona Kultur Etxea izan ohi bada ere, uztailean atari zabalean burutu zituzten. Hala, Okendo Zinema Taldeak *Pride* filma proiektatu zuen bere izena duen plazan. Lasarte-Oriako Udalak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin gauzatzen duen Kale Antzerkia Bultzatuz egitas-moko ikuskizunek, berriz, zabal-gunea eta ingurua hartu zituzten. Panta Rhei taldeak baso bilatu zuen Askatasuna parkea Irdin hartz kume abandonatuaren istorioa kontatzeko. Astebete geroago Ganso&Ciak *Welcome&Sorry* Hamleten bertsio berezia gauzatu zuen eta Barsati Teatroak *Lanean jarraitu 75 urtera arte!* Horrez gain, Alurr Dantza Taldeak joan den mendeko giroan oinarritutako *Laia* ikuskizuna eskaini zuten.



Alurr taldearen 'Laia'. TXINTXARRI

Alboka Abesbatzak Ordizian amaitu zuen ikasturtea

Emotio taldearekin batera egindako emanaldiarekin amaitu zuen ikasturtea herriko koruak. Gabonetan Ordiziako ahotsek egindako bisita bueltatu zieten Jasokundeko Andre Mariaren parrokiaren saioa eginda. Euskal Herriko eta nazioarteko doinuez bete zuten eliza Albokako kideek, zenbait abestitan Amaia Dorron-soro pianoan lagun izan zuten. Amaitzeko, bi taldeak batu eta *Txoria txori*, *Maitia*, *nun zira* eta *Agur Jaunak* abestu zituzten elkarrekin.

Zaldi Lasterketen I. Pronostiko lehiaketa martxan jarri zuten

Hilabeteko etenaren ondoren, udako denboraldiarekin jarraitu zuten Donostiako Hipodromoak. Horrekin batera, Zaldi Lasterketen Zaletuen I. Pronostiko Lehiaketa martxan jarri zuen zaletu talde batek. Izen emateak 20 euro balio zuen eta horien bidez bildutako diru guztia sarietara bideratu zuten.

Enpresako eraginkortasun energetikoaz jardun ziren

Enpresen iraunkortasuna lantzeko prestakuntza saio bat aurrera eramane zuten Beterri Buruntza Mankomunitateak, Mirentxun. *Ekonomia berdea enpresaren lehiakortasunerako* programaren barruan, Mankomunitateko parte diren herrietako enpresen iraunkortasunarekin zerikusia duten arlo ezberdinak lantzen hasteko asmoz, sektore ekonomiko zehatzetako zuzendutako elkarrizketak eta prestakuntza saioak aurrera eramane ditu Beterri Buruntza Mankomunitateak.

Blues musikak girotu zuen Jalgi Kafe Antzokia

Del Toro Blues Bandek geldialdia egin zuen Jalgi Kafe Antzokian. Musika hutsezko pieza batekin hasi zuen bikoteak bere emanaldia, eta ondoren, Danny Del Torok hitz batzuk esan zituen kontzertura etortzeagatik, eta bertan egoteak poztu arren, haserre ere bazegoela kontatu zuen. Izan ere, Bilboko Blues Jaialdian jardun zen eta materiala lapurtu zioten. Ezbehar horrek, hala ere, abesteko gogorik ez zituen kendu. Harmonika eta kantua uzartu zituen kontzertuan.

Oporraldia amaituta, Tinduferra bueltatu ziren haur sahararrak
Oporrak Bakean egitasmoan parte hartu duten familia lasarteiatarrekin udara pasatu duete Hasana, Ahmed eta Jalil haur sahararrek. Tindufeko errefuxiatu kanpalekuetara itzuli aurretik festa polita egin zuten abuztuaren 28an Xirimiri elkar-tean, elkar agurtzeko. Haurrak hurrengo egunean itzuli ziren euren bizitokira.

Lugañenek ez zuen hutsik egin Euskotren Ligan

2024ko Euskotren Ligan protagonista bakarra izan da Donostia Arraun Lagunak. Ontzi horrek aurraunaren historian txoko bat egin du bandera guztiak eskuratu baititu aurten Aiora Belartietia eta Nahia Goenaga



Liga irabazi izana ospatzen. EUSKOTREN

herritarrek kide dituen eskifaiaik eta Ligako garaikurra bereganatu du. Liga erdian matematikoki irabazia zutela ikusita, bandera guztiak eskuratzeko lan egin zuen taldeak. Baita

Maialen Chourrautek huts egin zuen finalean

Ez zen posible izan, ezin izan genuen Maialen Chourrautek berriro ere Olinpiar Joko batzuetako podiumean ikusi. Parisekoak laugarren Olinpiar Jokoak zituen eta oraingoan bi probetan aritu zen: K1ean eta kayak kros. K1eko finalean izan zen, baina ezin izan zuen podiumera igo, bigarren atean huts egin eta hamabigarren amaitu zuen. Hilaren 2an ekin zion kayak kros txapelketan, aldiz, final laurdenetan kanporatu zuten.




Maialen Chourrautek, finala jokatzeko. TXINTXARRI

lortu ere: hamabost banderak Lugañene baserrian bildu zituen taldeak.

Jon Martinek EA Sports Ligan debuta egin zuen

EA Sports Ligako hirugarren jardunaldian, Real Sociedadek Alavesen kontra jokatu zuten norgehiagokaren bigarren zatian atera zen zelaira Jon Martin herritarra. Abuztuaren 28koa Martinek zale txuri-urdinen aurrean ligan jokatu zuten lehen partida izan zen. Lan zaila izan zuen Imanol Aguacilen taldeak egun horretan, 30. minutuan jokalaririk bat gutxiagorekin gel-



Martin, txuri-urdinez. REAL SOCIEDAD


ditu baitzen, epaileak Mikel Oyarzabal txartel gorria atera

ondoren. Jon Pachecoren ordeza atera zen Martin atsedendariaren ondoren. Maila ona erakutsi, eta abagune polit bat ere izan zuen.

Zudairek Paralinpiar Jokoetan

Abuztuaren 28an Paralinpiar Jokoen sua piztu zuten Parisen. Hurrengo egunean hasi ziren lehen artean, Nanterreko La Defense igerilekuan Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire Borrezo aritu zen. 4x50 m. libre 20 ountu errelebo mistoarekin hasi zuten txapelketa. Sailkapen proban hirugarren amaitu zuen

Daniel Ferrer, David Sanchez eta Marta Fernandezekin batera. Seigarren denbora onenarekin finalera sailkatu ziren, baina Zudairek ezin izan zuen parte hartu. Hurrengo egunetan bai taldean bai bakarka lehiatu zen, eta dominarik lortu ez bazuen ere, diploma olinpikoak eskuratu zituen.



Zudaire, uretara sartzen. BAT BASQUE TEAM

Zaldi lasterketa interesgarriak Hipodromoan

Abuztuaren zehar, saio interesgarriak ikusi ahal izan ziren Hipodromoan, baita ezustekoak ere. Urrezko kopa jokatu zuten adibidez, Best Horse zalditegi portugaldarra izan zen lasterketa nagusiko protagonista eta euren zaldi *Media Storm*-ek saria irabazi zuen. Jardunaldi osoa izan zen emozioz betetakoa.

txintxarri

Hurrengo TXINTXARRI paperean urtarrilaren 10ean argitaratuko dugu

2025. urtean ere zuen ondoan egongo gara gure herrian gertatzen denaren berri ematen!

GurasoLeku egitasmoa martxan jartzear zegoen

Ikasturte berrian GurasoLeku egitasmoa abian jartzear zutela jakinarazi zuten Ttakun Kultur Elkarteak, udalak eta ikastetxeek. Programari esker, haurrak ahalik eta euskal hiztun osatuenak izateko helburuari eutsi zion Lasarte-Oriak beste behin abiatu berri zen ikasturtean. Herriko zenbait eragilek elkarlanean aurrera daramaten ekimena da eta familia tipologia desberdinetara egokitutako hiru adar ditu: GurasoLagun, GurasoTegi eta GurasoLandia.

Denboraldi berriari ekin aurreko eskaintzak egin zituzten

Biltegiko produktuen eskaintza egin zuen Aterpeak, Stock Azokan. Denboraldi berria hasi aurretik, biltegian pilatutako uda sasoiko produktuak herritarrei eskaini zizkieten. Merkatarien elkarteko kide diren dozena bat negoziok parte hartu zuten jardueran. Horrez gain, Flash Day egunak izan ziren Bote Tatton eta Patricio tabernak koktelak eskaini zituen, DJ batek girotuta.

Denboraldia biribiltzeko, Kontxako Bandera irabazi zuen Arraun Lagunak

Iraila hastearekin batera, Kontxako Banderako lehen jardunaldia jokatu zuten Donostiako badian. Donostia Arraun Lagunak izan zen onena eta Aiora Belartietak eta Nahia Goenaga herritarrek kide dituen eskifaiak bederatzi segundoko alde aterazien aurkari. Lugañene Euskotren Ligako garaipenaz hauspotuta zetorren, bandera guztiak bildu baitzituen. Denboraldi biribilaria amaiera bikaina emateko proba berezi honen garaiak eskuratzea besterik ez



Belartietak, banderarekin. IRUTX. HITZA

zuen Donostiako ontziak, hilaren 8an. Erakustaldia egin zuten bigarren jardunaldian Euskotren Ligako lehen lau sailkatuak batu ziren saioan –Tolosaldea, Nordial Donostiarra eta Oriak– eta balentria egin zuen Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako txapelketetako eta Euskotren Ligako garaile izateaz gain, Kontxako Bandera bigarrenez jarrarian eskuratu zuten.

Urrezko neskak omendu zituzten haien ondorengoek

Omenaldi eder eta hunkigarria egin zieten haien ondorengoek, duela sei hamarkada urratzen hasitako bide oparo eta eredu-garria eskertzeko. Emakumeek kirola egitea egokitzat jotzen ez zen garaian, herriko emakume talde batek ATC saskibaloi taldea eratu zuen 1964ko irailean. Santa Ana karkabako lokalean bazkaria zuten eta aurrez argazkia egiteko hitzordua. Han agertu ziren ere seme-alabak, ilobak edota bilobak, duela 60 urte egindako balentria hura aitortzeko. Parez pare jarrita, esker hitzak esan eta bertsoak abestu zizkieten, baita haiek paperean jasota eman ere.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bigarren final zortzirena, herrian

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bigarren final zortzirena jokatu zuten Manuel Lekuona Kultur Etxean. Aitor Zubikarai, Amaia Iturriotz, Oier Etxeberrria, Manu Goiogana, Iñigo Mantzizidor eta Aner Peritz *Euskitze* aritu ziren mikro aurrean Haritz Alberdi gai jartzaileak proposatutakoei errimak eta hitz neurtuak asmatzen. Saio puntuagarriko ariketak amaituta Iturriotz gailendu zen, eta haren atzetik Peritz, Etxeberrria, Goiogana, Mantzizidor eta Zubikarai izan ziren.

EH Bilduk salatu zuen "noraezean" zebilela udal gobernua

PSE-EE eta EAJ alderdien urtebeteko kudeaketaren gaineko balantzea egin zuen koalizio subiranistaren udal taldeak: "Udalak zekarren norabide eza eta kudeaketa tamalgarria areagotu baino ez dira egin; egoera larria eta jasanezina da". Batek, kritikatu zuten ez zirela gai izan "zer-nolako Lasarte-Oria nahi duten definituko duen he-

rri proiektua bat" aurkezteko eta "ezgaitasuna" erakusten ari zirela herritar eta eragileei egunerokoan eragiten dieten kontuak kudeatzerakoan.

Urtebete osatu zuen Borobilean elkarteak

Urtebete igaro zen belaunaldi arteko herritar talde batek Borobilean elkarte sortu eta abian jarri zuenetik. Egindako bidearen balorazioa egin zuten zenbait kidek eta abiatzear zuten ikasturte berrirako asmoak ezagutarazi zituzten ere. Zazpi gai jorratu zituzten lehen urtean, askotariko hitz hartzeekin: komunikazioa, zaintza, osasun publikoa, gizentasuna, belaunaldi artekotasuna, gazteak eta gaztetxeak, eta euskalgintzaren norabidea. Saio guztiek 40 lagunetik gorako asistentzia izan zuten. Hilaren 24an ekin zioten ikasturte berriko saioei *Lasarte-Oria, herritarrek, eragileak, komunitatea... elkarrekin eraikitzen ari gara?* galderari erantzun nahian.



Borobileaneko kideak. TXINTXARRI

Manttangorri hiribusaren zerbitzu berria, abian

Lasarte-Oriako Udalak zazpi urterako kontratu bat esleitu zion Transitia SL enpresari, Manttangorri hiribusa kudea zezan. Hobekuntza ugari ekarri zituen, esaterako, San Frantzisko eta Zatarain auzoetan geldialdi bana egitea. Astegunetako ordutegia zabaldu egin zuten ere, 07:40ean hasi eta 21:00etan amaituta. Larunbatean ere erabiltzeko aukera ere, 14:00etatik 17:00etara izan ezik. Bestalde, jakinarazi zuten ibilgailu berria %100 elektrikoa izango zela eta askoz jota urtebete barru hasiko zela zerbitzua ematen.



Danborrada jo zuten jaietan, lehenengo aldiz. TXINTXARRI

Extremadurako jaiak, herrian

Guadalupeko Ama, lurraldearen zaindaria, gogotik omendu zuen Extremadura Etxeak hilaren 5etik 8ra bitartean, bere omenezko jaiak ospatuta. Ohi bezala makina bat jarduera aurrera eraman zituzten adin tarte guztietako herritarrek kontuan izanda.

Zazpigarrenez, auto klasikoek Lasarteko Zirkuituaren arima berpiztu zuten

San Sebastian Circuit Spirit egitasmoko kideek auto klasikoan eta kirol ibilgailuen zazpigarren rallya aurrera eraman zuten hilaren 13an eta 14an. Ohi bezala, ibilbidearen parte izan zen Lasarte-Oria, XX. mende hasieran Oriak auzoan izandako zirkuitu klasikoagatik. Aurten 101 urte bete ditu. Hamazazpi markatuko autoen gidariek parte hartu zuten eta ehun partaidek baino gehiagok osatu zuten herriaren geldialdia izan zuen ibilbidea.

Saustatxo elkarteak 47 urte betetzeko ospakizun bazkaria aurrera eraman zuen

Sasoeta auzoko 60 bat lagunek eratu zuten 1977ko irailaren 9an. Data horren bueltan, urtero, bazkideen bazkaria egiten dute, baina horren aurretik, falta direnak gogoan, mezatar joaten dira. Ama Brigitarren komentuko kaperan bildu ziren hilaren 14an Felix Garitanok gidatutako elizkizuna entzuteko; bitartean, egungo 67 bazkideetako batzuk elkartean bazkarirako dena prestatzen aritu ziren. Urdaiazpikoa, marmitakoa, labean erretako arkumea letxugarekin, pastelak, kafea eta kopa izan ziren 26 lagunek dastatu zuten menua. Horri ekin aurretik, atarian talde argazkia egin zuten.

Hodei Murgiondo Asturiasen lehen postuetan izan zen

Udako etenaren ondoren, surf txapelketak itzuli ziren eta Hodei Murgiondo herritarra bai Asturiasen bai Lapurdin izan zen lehian. Lehen txapelketan, gainera, laugarren izan zen Espainiako 14 urtez azpiko zirkuituko bigarren proban. Olatu gainean ondo moldatu zen eta finalerako sailkapena eskuratu zuen gazteak. Azken proban ezin izan zituen puntutan gailendu bere aurkariak. Astebete geroago, Angelun Rio Curl GromSearch probako Europako finalean aritu zen.

Ezustekorik ez, Hipodromoko denboraldiko agurrean

Udako zaldi lasterketa denboraldia hilaren 12an amaitu zen Donostiako Hipodromoan. Bost probako azken jarduenaldian Jaime Gelabert jockeyak hiru sari eraman zituen.



Lasterketetako bat. ISAAC FARRE RICO

Beltzak Rugby taldeak, bi berrikuntza nabarmen

Errugbi elkarteak bi berrikuntza nagusirekin hasi zuen denboraldia. Batetik, errugbi gozatzeko emakume eta queer talde bat osatu zuen. Lehen urteko xedea kirolaren nondik-norakoak ikastea dutenez ez da lehiara aurkeztuko. Bestetik, senior mailan "talde sendoago eta indartsuago bat" osatzeko asmoz, Beltzak eta Zarautz RT taldeek Donostiako Bera Bera RTrekin bat egin zuten. Gipuzkoa Sortzen izena hartu zuen proiektuak eta etorkizunean lurraldeko beste talde batzuk ere elkarte aurreikusten dute.

15 urtetik beherako pertsona ia bezainbeste txakur bizi dira herrian

Maskotak izan zituen aztergai Saretzen egitasmoaren bosgarren kolpeak. Lasarteoriatarrek etxeetan dituzten maskota ohikoenak, bestelakoekin alde nabarmenera gainera, txakurrak eta katuak dira: 2.221 eta 289 erregistratuta zeuden udalerrian, hurrenez hurren. 15 urtetik beherako gaztetxoak 2.659 dira eta txakurrak, berriz, 2.221. Haurren eta txakuraren proportzioarekin antzeko zerbaite gertatzen da, izan ere, gure herrian, 8,4 txakur daude hamar umeko.



Txakur bat, jesarrita. TXINTXARRI

Xuhakanez V. Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasun txapelketa antolatu zuen

Xuhakan Txakur Elkarteak antolatutako V. Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasun txapelketa jokatu zuten hilaren 21ean Bugati erretegiaren ondoan duten gunean. 40 bat binomio – gida eta txakurra – lehiatu ziren mailaren arabera, lau kategoriatan banatuta. Eskatutakoa egiten txakurrak eta jabeak izandako

trebezia kontuan hartu zuten epaileek.

Zataraingo etxeen zozketak ezinegona eragin zuen

Zatarainen dauden Babes Ofizialeko 64 etxebizitza zozkatu zituzten 1.310 pertsonaren artean eta horretarako erabilitako jardunbideak harrabotsa eragin zuen kultur etxera bertaratu zirenen artean. Sukia enpresako hiru ordezkari, notario bat eta Agustin Valdivia alkatea arduratu ziren zozketa egiteaz. Mugikortasun murriztua duten pertsonen bideratutako lau etxebizitza zozkatu zituzten aurrena, hamar pertsonaren artean. Ondoren, beste 60ak. Orduan, eserlekutik altxa eta hitza hartzea erabaki zuen Iñigo Otaegik, prozedurarekin zalantza zitu elako, batetik, eta erdara hutsean ari zirelako, bestetik. Bere iradokizunak entzun ondoren, sistemaz aldatzea erabaki zuten mahaikoek, unean bertan. Zozketarekin segi ahalagaritu ziren jendearen marmarrak eta haiek entzutean Sukiako arduradunek prozedura legezkoa zela esan zuten, notarioak sinatuko zuelako. Legala izanda ere, justua ote zen zalantza zuen gazteak.

Herria eraikitze gakoak partekatu zituzten

Borobilean Elkarteko kideek ikasturte berriko lehen mahai ingurua eraman zuten, Joxemi Zumalabe fundazioko lagunak gonbidatuta. Herri mugimenduen ezaugarriak landu zituzten aurrena eta taldetxotan banatu gero, ideiak elkarbanatzeko. Elkarteen artean egun dagoen lankidetzaren diagnosis egin eta norabide horretan etorkizunean egin beharrekoak irudikatu zituzten.

Keinu txikien bitartez komunitatea egiteko kanpaina

Caritas Gipuzkoak, Aterpea merkatarien elkartearekin elkarlanean kanpaina bat abiatu zuten. Helburuak kalean presente egotea eta herritarrak sentsibilizatzeko zen, eguneroko jarrerak pertsona guztientzako gizarte abegikorragoa eraikitze duen garrantzia azpimarratzearekin batera. Aterpea elkarteak hogenahar bat saltokik euren erakuslehoetan kanpainaren afixa eta pertsona guztientzako aukerak dituen gizarte bat eraikitze-

ra gonbidatzen duen mezua jarri zuten.

Bizikleta izan zen Mugikortasun Astearen izarra

Autorik gabeko Mundu Eguna erekin (irailak 22) bat egin zuen aurten ere Lasarte-Oriako Udalak eta XVIII. Mugikortasun Astea aurrera eraman zuen. Artelatz enpresarekin batera prestatutako jarduera gehienak Okendo plazan eta Kale Nagusian barrera egin zituzten. Zabalgunean jarritako bigarren eskuko azokan, 90 bat patin eta bizikleta izan zituzten aukeran eta handik abiatu zen ere bizikleta mar-txa. Kale Nagusian, berriz, bizikleta pedalei eraginda, scalextric batean auto lasterketak egin zituzten, gorpulen gomekin apain-garriak, bizikleta zirkuitua...

Ondo Ibili egitasmoa martxan jarri zuten

Ikasturte berriarekin batera hasi ziren herriko nagusientzako Ondo Ibili saioak. Lehena, Mugikortasun Astearen barruan egin zuten. Ibilaldi saioak dira, astean behin, ostiralean aurrera era-



Ibilaldietako bat. TXINTXARRI

mango dituztenak. "Osasuna eta ongizatea" dira bertan parte hartzen dutenentzat, eta horrez gain, herritarrak elkar ezagutu eta adiskidetasun berriak egiteko aukera ere eskaintzen dute.

Inauterietako gaia aukeratzeko parte hartze prozesuari ekin zioten

Hilabete batzuk geratzen dira oraindik Inauterietan murgiltzeko, baina horiek garaiz eta ganoraz prestatzeko asmoz, mo-zorrorako gaiak proposatzeko parte hartze prozesua abiatu du udalak egunotan. Hala jakinara-zi du Agustin Valdivia alkateak, Jaiak saileko zinegotzi Txus



Ikuskizun txundigarriak egin zituzten Xacobeo merkatuan. TXINTXARRI

Erdi Aroko giroz jantzita

Erdi Aroko Xacobeo azoka zortzigarrenez aurrera eraman zuten hilaren 20tik 22ra, erdigunean. Kale Nagusian eta Okendo zein Elizatze plazetan eskaintza zabala izan zuten merkatura bertaratu zirenek. Espero baino jende gehiago joan zen postuetara.

Alonsok eta Parte hartze saileko batzordeburu Nagore Duranek. Hasteko eta behin, aurtengo prozesuak izango duen berrikuntzaren berri eman du Duranek. Esan du bi fasetan banatuko dela. Abiatzearekin batera herritarrek proposamenak egin eta ondoren, etxean jasotako eskuorriaren bidez, iritzia emateko aukera zuten.

Mendebete osatu zuen Mercedes Ramos Callek

Duela 50 urte Lasarte-Orian bizi den herritarrak 100 urte bete zituen eta bai senideen bai udal ordezkarien bisita jaso zuen bizitoki duen Atsobakar egoitzan. Cacereseko Pional herrian jaio zen Ramos 1924ko irailaren 21ean. Bertan ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen, Juan, Luis, Maria Angeles eta Belen Merchan, eta 50 urte zituela Lasarte-Oriara etorri ziren. Beste asko bezala, lehenik senarra lekualdatu zen bizimodu oparago bat izan nahian, eta egonkor-tuzenean, han zituzten lur batzuk saldu, etxebizitza erosi eta familia herrian elkartu zen. "Bizitza erdia darama hemen", nabarmendu zuen Maria Angelesek, amari buruzko beste xehetasun batzuen artean.

Aisia egitasmoetako izen ematea zabaldu zuten

Ttakun Kultur Elkarteak martxan jarri zituen Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean aurrera

daramatzaten aisia egitasmoetako batzuk, arlo horietan ere euskararen erabilera bultzatzeko. Gazte Kluba KG3 eta LH6 ikasmaila arteko haurrentzat bideratutakoa, Kuadrillategi, berriz, DBH 1 eta DBH 4 ikasmaila arteko gaztetxoei zuzendua eta bestalde, Plaza Dantza egitasmoa kideek entseguekin hastekoak zirela ezagutarazi zuten.

Ostadar Ipar Martxa, hamar urteko bultzada

Ostadar Ipar Martxa taldeak 10 urte bete zituen. Hamaika irteera, bidaia eta ekimenetan parte hartu zuten urte horietan guztietan. 2014an Rosa Ormazabal eta Begoña Morianak ipar martxako instruktore ikastaroa egin zuten eta herrian talde bat sortu eta kirol diziplina hori irakasteko asmoa agertu zuten. Ostadar SKTra jo zuten taldea nola sor-



Ipar martxalariak. TXINTXARRI

zezaketen galdetzera eta orduz geroztik euren babesarekin egin dute bidea.

Hamarkada ospatzeko egun osoko egitaraua aurrera eraman zuten adin guztietako lagunei bideratua: ibilaldia, hamaiketakoa, Erketz EDTren aurrekua, trikipoteoa, bazkaria, Earra bertso eskolako kideen emanaldia, Intza Alkain eta Bea Egizabalen umore saioa, Porrotx eta Bizipozaren Kantukolore, ipar martxa eta kirol egokitua dantzan, Elektropottotte, Denboraz kanpo taldearen kontzertua eta Auskalo taldearen erromeria.

Garaipen garrantzitsuak lortu zituen Maialen Chourrautek

Parisko Olinpiar Jokoetan ezin izan zuten, baina Maialen Chourrautek garaile izan zen hitzordu garrantzitsuetan. Hilaren hasieran banaka eta taldeka K1 eta kayak kros modalitateetako Espainiako txapelketan lehiatu eta podiumeko gorenera igo zen. Hilaren 20an, berriz, Munduko Kopako finalean urrea eskuratu zuen. Txapelketa guztiak ondo ezagutzen duen La Seu D'Urgeleko (Lerida, Katalunia) kanalean jokatu ziren.

Beñat Telleria hirugarren izan zen Euskal Pentatloian

Euskal Pentatloiko II. mailako txapela jantzi zuen Beñat Telleria Telleria IV herritarrak ekainean. Hiru hilabete geroago, I. mailako podiumeko hirugarren mailara igo zen. Hilaren 21ean Azpeitiko zezen plazan jokatu zuten zazpigarren ediziooko finala. Egin beharreko lanak izan ziren: 100 kiloko harriari hamar jasoaldi, 400 kiloko harriarekin plaza bat egin, bi enbor moztu, 50 kiloko txingekin hiru plaza egin eta kilometro eta erdi ko-

VI. Dantzari Eguna ospatu dute Erketz eta Makaia taldeek

Bost urteren ondoren, dantzari eguna berreskuratu du Erketz Euskal Dantza Taldeak. Faltzesko (Nafarroa) Makaia gonbidatuta aurrera eraman zuten seigarrena. Partaideak jantzi, eta kalejiran abiatu ziren Okendo plazatik erdigunea zeharkatzeko. Okendoraino joan eta ordubet pasatxo iraun zuen emanaldiari ekin zioten: eragile bakoitzak bere erreperioko dantzarik onenak egin zituen eserleku denak bete zituen publikoaren aurrean.



Maiakaren dantza taldeetako bat, emanaldi betean. TXINTXARRI

rrika. Telleria bere txandan azkarrena izan zen, baina bigarrenen aritu ziren Izeta IV eta Olaizolak bere marka ondu zuten.



Telleria, proba jokatzeko. MAIDER GINEA

LOOPA plataformako kideak kexa bidali zioten Arartekoari

Osasun publikoaren defentsan lanean ari den Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde (LOOPA) plataformak Mobilizazio bat aurrera eraman zuten hilaren 30ean Okendo plazan, haren



LOOPAko kideak, kexarekin. TXINTXARRI

ondoren egin zuten jarduerari babes emateko: Correoseko bulegora joan eta kexa bat bidaltzea Arartekoari, 1.500 herritar baino gehiagoren sinadurak bildu ondoren. Egun horretan udalerriko osasun zentroan lanean aritu diren bost langileri kontratuak eten zizkieten. Udalerriko osasun zentroan dauden "gabeziei" irtenbidea emango dien "talka plan bat" aurkezteko eskatu diote erakundeari.

Azken Ostiralarekin hasi zuten ikasturte berria

Udako etenaldiaren ondoren, Azken Ostirala dinamikari heldu zioten berriro hilaren 27an. Hilabeteroko hitzordu honek atsedean hartu bazuen ere, Sarrerren eskaerak presente jarraitu zuten, "jai giroan zein oporretan 'etxera' aldarrria Euskal Herriko hamaika txokotara" zabaldu baitzuten. Ikasturte berria "gogotsu eta indarberrituta" hasteko asmoa zuten eta horren erakusgarri Behin Betiko dinamikaren abiatzea hilaren 25ean.

Oroitzapena eta lehia, II. Mendi Lasterketan

Eguraldia lagun, 200 bat korrikalarik parte hartu zuten Lasarte-Oriako II. Mendi Lasterketa. Juanlu oroitzapen proban. Okendo plazatik Buruntzaldeko bideak parte hartzailez eta ikuslezz bete zituen hilaren 28an 14 kilometroko probak. Uztailean hildako Lasarte-Oria Trail Mendi elkarreko kide Juan Luis de la Mataren


senideek guztien berotasuna jaso zuten irteeran egindako ekitaldian. Patrick Laqueche Saralegi eta Garazi Artola Balda izan ziren gizezko eta emakumezko azkarrenak.



Juanlu oroitzeko ekitaldia. TXINTXARRI

Aitor Manso podiumean izan zen Euskadiko probetan

Euskadiko Mendi Igoeretako Txapelketako azken txanpan, Aitor Manso herritarrak Jaizkibel zein Dimako igoen 9. mailako garaikurrak jaso zituen. Bizkaiko proban sailkapen orokorreko podiumera ere igo zen, bigarren sailkatuta. Gidaria pozik zegoen bi hitzorduetan egindako lanarekin.



Mansoren autoa. AITOR MANSO

TXANGURRUA DONOSTIAR ERARA

Errazioa **18,00 €**

ARRAIN-ZOPA

Errazioa **9,00 €**

Abenduaren 31rako eskaerak tabernan bertan edo telefonoz ☎ **943 36 27 09**

Sasoetako Jaiak, ekimenez betetako hiru egun

Sasoeta Sasoian auzo elkarteko kideek antolatuta, hiru eguneko jaiak ospatu zituzten auzoan, txupinazotik hasi eta azken traka arte. Tartean, auzoko plaza eta kaleak bete zituzten adin tarte guztietarako makina bat jarduerarekin: danborrada, kontzertuak, erraldoi eta buruhandiak, otordu herrikoiak... Sausatxo elkarteak omendu zuten festetako lehen suzeria jaurti aurretik, eta elkarteak lokala estreinatu zuen.



Futbollean jokatzeko. TXINTXARRI

Kontsumo bonuen kanpaina aurrera eraman zuten

Tokiko kontsumoa sustatuz herriko establezimenduei laguntzea xede du kontsumo bonuen kanpainak. Aurtengoak 100.000 euroko aurrekontua zuten eta hilaren 7tik azaroaren 3ra luzatu zen. Herrian erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonen eskuratu ahal izan zituzten bonoak, gehienez, hamar. Bakoitzak 10 euroko balioa izan arren, erosleak, horietatik 5 euro besterik ez zituzten ordaintzen, gainerakoa udalak bere gain hartuta.

Herria eremu tentsionatu izendatzeko eskatu zuten udalak

Lasarte-Oriako Udalak herria eremu tentsionatu izendatzeko eskatu zion Eusko Jaurjaritzari, Gipuzkoan halako eskaera egin zuten hirugarrena izan zen. Hala ezagutarazi zuen Agustin Valdivia alkateak, jarraitutako prozesua azaltzarekin batera. Bi betekizun behar dira izendapen hori lortzeko: 2017-2022 urteen artean alokairuen prezioa %17 baino gehiago hazi izana, Lasarte-Oriaren kasuan, 18,15; eta herritarrek alokairuak ordaindu ahal izateko egin beharreko aha-

laegin ekonomikoa %30 baino altuagoa izatea, lasarteoriarren kasuan %32,2 da. Hiru hilabete-ko epean jaso dezake udalak eskaerari erantzuna.

EH Bilduri erantzun zion udal gobernuak

Sozialistek eta jeltzaleek osatzen duten gobernu taldearen izenean Agustin Valdiviak EH Bilduri erantzun zion. Aste batzuk lehenago "noraezean" ibiltzea egotzi zien alderdi abertzaleak, baina alkatearen esanetan, "oso gida argia" dute, "herritarren bizitza hobetzeko 140 neurri baino gehiago dituen programa", egunez egun aurrera eramaten ari direna; eta EH Bilduren "erabateko proposamen falta" kritikatu zuen.

Adinekoen Omenaldi Astea ospatu zuten

Biyak Bat egoitzako kideek bandera igota eman zioten hasiera hilaren 1ean jardueraz betetako zazpi eguneko Adinekoen Omenaldi Asteari. Hortik aurrera askotariko ekimenetan parte hartu zuten, hala nola, mahai jokoen txapelketa edo musika emanaldiak. Asteburuan, San Pedro parrokiako elizkizunean batu ziren sinesdunak, bapo bazkaldu zuten Michelin kirol gunean, eta ondoren, dantzarako tarte izan zuten. Hilaren 8an, berriz, urrezko ezteiak bete dituzten egoitzako kideen egun handia izan zen. Lehenik, meza entzun zuten komentuan, ondoren, aitortza eta opariak jaso zituzten, eta amaitzeko, Herriko Etxean bazkaria eta dantzaldia izan zituzten.

Gozatu kanpaina gauzatu zuten Aterpeak

Bezeroak mimatzeko kanpaina berri bat martxan jarri zuten Aterpea merkatarik elkartek. Hilaren 14tik 26ra aurrera eraman zuten, eta horren bitartez, bezeroen fideltasuna saritu zuten. Denbora tarte horretan ekimenarekin bat egin zuten establezimenduetan erosketak egin zituztenek kolore urdineko txartelen bidez sariak eskuratzeko aukera izan zuten. Batzuek sari zuzena izan zuten, eta beste batzuek, erosketa bonuen zozketan parte hartzeko balio zuten.

Teknologiaren erabilera bultzatzeko guraso taldea

Joan den ikasturte amaieratik lanean ari da Altxa Burua La-

sarte-Oria taldea, helburu hauekin: Internetera sarbidea duten gailu elektronikoa egoki erabiltzeko helduak eta gaztetxoak trebatzea; seme-alabei horrelako tresnak ematea aztertzea, eta eskolak sakelako telefonorik gabeko arnagune bihurtzea. Zentzurik gabeko eta neurrigabea den erabileraren kontra daude, eta beharrezkotzat jotzen dute norabide horretan, "guztiok" formatzea eta gaiari buruz hausnartzea.

Emakume sortzaileen II. jardunaldia burutu zuten

Ekainean aurrera eraman zuten Ihitten elkarteak Emakume Sortzaileen lehen jardunaldia, eta *Sorkuntza memoriatik* izenburupean egin zuten bigarreneko hiru emakume sortzaile gonbidatu zituzten: Fanny Alonso eta Maialen Porroy diseinatzaileak eta Nagore Legarreta argazkilaria. Memoria ardatz duten bi dokumental ekarri zituzten, lehenek, *Kotoi*, eta bigarrenak, *Ibaia ez da toki bat*; garai bateko espazioak, jendearen oroitzeak eta biziaren sorkuntzarako lehengai ere badirela agerian utzita.



Sortzaileen jardunaldia. TXINTXARRI

Palestinari eta Libanori elkartasuna adierazi zioten

Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Ekimenak deituta, urriaren 7an manifestazioa egin zuten. Egundorretan urtebete osatu zen Israelek Gazaren aurka "1948ko *Nakba*-z geroztik burutzen ari den erasoaldi bortitzena" abiatu zuenetik. Elkartasun olde bat bidali zieten lasarteoriarrek bai palestinarrei bai Libanori, estatu sionistak berriki erasotu baitzuen herrialde hori eta Hezbola erakundeko liderra erail. Gatazkaren egoera eta gertakariak salatzeaz gain, Kale Nagusian manifestariak performance moduko bat egin zuten, lurrean etzan



Jendetza erakarri zuen erraldoien topaketak. TXINTXARRI

Egun osoko festa erraldoia

LOZETek antolatutako erraldoien topaketan herriko taldearekin batera, Lebiton, Besamotza, Loretope eta Faltzeseko nahiz Caparrosoko konpartsek parte hartu zuten. Hogei bat erraldoi, kilikiek eta buruhandiek erdiguneko kaleak bete zituzten.

eta Palestinako banderak soinean jarrita; bitartean, Xumela koruko lagunek Mikel Laboaren *Txoria txori* kantatu zuten.

Udalak kendutako hoberia berrezartzeko eskatu zuten

Clasicos Lasarte-Oria elkarteak deituta, 92 auto eta hamazazpi motor klasiko elkartu ziren Hipodromoko aparkalekuan hilaren 6an. Herritarrek ordu-bete izan zuten haiek ikusi, argazkiak egin eta jabeekin hitz egiteko. Ondoren, motorrak piztu eta Brunet parkeraino joan-etorria egin zuten. Jabeak haserre daude udalak ezabatu egin duela ibilgailu klasikoaren gaineko hoberia eta egoera gizarteratzeko aurrera eraman zuten aipatu ekimen hori.

Banakako frontenis txapelketa jokatu zuten trinketean

Azpiegitura biziberritu eta kirola oinarri hartuta belaunaldi gazteen arteko harremana sendotzeko asmoz, herriko gazte talde batek frontenis txapelketa aurrera eraman zuten Mirentxuko trinketean. Iker Artetxe izan zen banakako txapelketako garailea, Joseba Rekondo 22-18 gaitututa finalean. Hirugarrena, berriz, Jon Sarasua oriotarra izan zen, finalerdian min hartu zuten Unai Ituartek eta lehiatze-ari utzi behar izan zion.

Aitor Manso podiumeko bigarren mailan, Alacanten

Aitor Manso pilotuak III. mailako bigarren postua eskuratu zuen Espainiako txapelketako azken aurreko proban. Onil igoeran, Alacanten, kategoriako denborarik onena egin zuten proba lehiatuan. Sailkapen orokorrean, Joseba Iraola izan zen garailea eta herriko gidari gazteak laugarren amaitu zuten, hirugarrenarengandik gertu.

Fuentes eta Rodriguez, Euskadirekin lanean

Ligako denboraldiarekin batera, areto futboleko Euskadiko selekzioak ere entrenamendu saioak hasi zituen eta 16 urtez azpiko taldearen deia jaso zuten Eguzki Areto Futbol taldeko kide Aratz Fuentesek eta Markel Rodriguezek. Biek Loiura (Bizkaia) bidaiatu zuten taldearekin lan egitera.

Eider Redondo, Euskadirekin Federazioen arteko lehiari

Ostadar SKTko Eider Redondo Juarezek Euskadiko Selektzioaren deia jaso zuten 16 urtez azpiko Federazioen arteko Espainiako txapelketan lehiatzeko. Hilaren 5ean, Tuteran (Nafarroa) jauzi hirukoitzeko proban parte hartu zuten. Federazioetako hemezortzi kide lehiatu ziren eta zortziko finalerako sailkatu zen herritarra 5,15 metroko jauziarekin. Marka hori bera egin zuten azken saiakeran, eta horri esker, zazpigarren amaitu zuten proba.

Basaundi bailarako zaharberitze lanei bisita

Basaundi bailarako etxebizitzak zaharberitzeko proiektua nola doan ikusi zuten Eusko Jaurlaritzako eta Lasarte-Oriako Udaleko ordezkariak. 8 milioi euro pasatxoko aurrekontua zute hamabi ataritako 119 bizitoki birgaitzeko lanek. Esku hartzea Bepiztu programaren eta Europar Batasunak finantzatzeko Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan dago. Agustin Valdivia alkatean nabarmendu zuen obra horiekin "irisgarritasun unibertsala" lortuko dutela Basaundin, "eraikin guztietan igogailuak jarri eta apartamentu blokeen efizientzia energetikoa lortuko dugu".



Basaundi auzoa, obretan. TXINTXARRI

Udalari buruzko albisteak, WhatsApp bidez ere bai

Lasarte-Oriako Udalak WhatsApp kanal berri bat jarri zuen martxan "udal administrazioa teknologia irisgarri eta modernoan bidez hurbiltzeko konpromisoa berretsiz". Zerbitzu hori gehitu zuen erakundearen komunikazio kanal berri gisa, tokiko informazioa iristeko azkartasuna eta irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin. Horren bitartez, herritarrek udalarekin zerikusia duten albiste nagusiak jaso ahal dituzte eta aisialdi agendara sarbidea dute.

'Animaltzen' tailerra, sortuz ikasteko

Zorione Mendez Martin artistak gidatuta, dozena bat gazte lasarteoriarrek parte hartu zuten tailerlean eta arrisku egoeran bizi diren Euskal Herriko animaliei buruz ikasi zuten. Sormen lanak egin zituzten partaideek bai bakarka bai taldean ere, askatasunez, iruditzen zitzaizena egiten.

Okendo, Andaluziako kulturaren erakusleihu

Hiru egunez, ohi bezala, andaluziar kulturaren erakusgarri onenak ekarri zizkien herritarrei Semblante Andaluz elkarteak. Nahi izan zutenek aukera izan zuten hartan murgiltzeko eta gunearen itxura ikusi besterik ez zegoen, erakarritakoak asko izan zirelax jabetzeko. 21. Aste Kulturalak, espero bezala, flamenkoa, runba, kanta eta dantza izan zituen; baina baita jateko goxoa, hitzaldiak, jolasak eta hizketarako leku atsegina ere.



Zenbait pertsona, Aste Kulturalako erromerietako batean dantzan. TXINTXARRI

Euskadi Literatura sari bat, Harkaitz Canorentzat

Haur eta Gazte Literatura kategorian gailendu zen Harkaitz Cano Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez (Erein) album ilustratuarekin. Epaimahaiak balioan jarri zuen Canoren lana: "Liburutegiei omenaldia egiten die eta literaturaz harago, heriotza, maitasuna, senitartekoaren harremanak eta beste horrenbeste gai unibertsal jorratzen ditu, protagonistaren bizitzatik abiatuta". Gisa horretako laugarren aintzatespena da idazle lasarteoriarrentzat.



Laugarren aldiz irabazi du. TXINTXARRI

Asunak taldeak barne lanketan aritzea erabaki zuen

Asunak Lasarte-Oriako gazte talde feministak eskutitz ireki baten bidez jakinarazi zuen taldeak herrira begira ekintzak antolatzeko indarrak ez zuela eta barne lanketan zentratzea erabaki zuela. 2020. urtean gazteek praktika feministak aurrera eramateko helburuarekin sortua, herrian zegoen hutsuneari eran-

tzunez, hainbat ekintza burutu dituzte urteotan adin eta kuadrilla ezberdinetako gazte feministak biltzeko eta saretzeko espazioa eskainiz.

Ordu luzez zizelkatutako lanak, Mercero aretoan

Zurmailu Zurlanketa Elkarteak kideek eta udal ikastaroetako partaideek egindako lanak ikusgai jarri zituzten urtero bezala Antonio Mercero aretoan. Tamaina eta forma askotarikoak ziren: hilabetetan luzatutako zereginaren emaitzak tamaina eta forma askotarikoak ziren: handiak, txikiak, erabilgarriak, apaingarriak... baina denak, ikusgarriak.



Erakusketako zenbait lan. TXINTXARRI

Jon Presa Hiru Hondartzetako krosetako podiumera igo zen

Jon Presa Herranz atleta Lasarteoriarrek bigarren postuan amaitu zuen Donostiako hiru hondartzak inguratzen dituen hamar kilometroko proba. Emakumezkoen parte hartzea gizonezkoena baino handiagoa izan zen; Maite Salazar

Badiola izan zen herritarren artean lehen emakumea.

Urteko erronka eta mugarrak aurkeztu zituen Ernaik

Gazte antolakundearen herriko taldeak Xirimirin aletu zituen ikasturte honetako jarduerak eta lan ildoak. Eragilea "ekonomikoki kaltetzeko abian den operazioari" aurre egiteko baliatu nahi dute eta independentziaren alde dauden gazteak "geroz eta gehiago" direla erakutsi eta borroka horretara pertsona gehiago atxikitze saiatzeko.

Txistulariak, herri kirolak eta erromeria, Euskal Jaian

Txistularien dianak zabaldu zuen udaleko Kultura sailak aurreneko antolatutako Euskal Jaia. Pare bat orduz kalez kale ibili ziren doinu ezagunak joaz. Arratsaldea, berriz, herri kirolen erakustaldia egin zuten, Nepalitik etorritako hiru sherparen bisita eta guzti; eta amaitzean, Jaian Jai erromeria taldearen emanaldiak itxi zuen eguna.

Omenaldi hunkigarria egin zioten Jose Felix Solanori

Urte luzetan izandako pilota eskolako ardura 2023-2024 denboraldi amaieran utzi zuen Jose Felix Solanok. Egindako lanari aitortza gisa, adin ezberdinetako pilota partidak jokatu zituzten Loidibarrenen. Senior mailakoan bikoteka aritu ziren Jon Pello Artetxe eta Aranguren, Axier Arteaga eta Aritz Solanoren aurka. 18. tantora iristean, ordea, ezustekoa izan zen: bikotekideak aldatuta, Solanok Goio osabarekin eta Arteagak Juan Mari aitarekin jokatu zuten 22

puntura iritsi artekoa. Solanotarrek lortu zuten garaipena. Intza elkartearen egoitzan jarraitu zuten omenaldia bapo bazkalduta.



Jose Felix, Loli emaztearekin. TXINTXARRI

Lehia eta giro ederra, 27. Lasarte-Oria Bai! krosetan

800 kirolari baino gehiago batu ziren irteera puntuan, helmugan, berriz, Aitor Etxeberria eta Irati Larrañaga korrikalariak eta Josep Donaire eta Cristina Borrás ipar martxalariak izan ziren azkarrenak. Antolakuntzak Ormazabal loradendari eman zion 1 zenbakidun dortsala Ramon eta Pello Ormazabal anaiek jaso zuten. Aintzatespena eskertzeko aurrerakua dantzatuta zuten.

Antton Garinen omenezko bertso saioa, Zabaletan

Udazken festa moldatu behar izan zuten Zabaletako auzotarrek eguraldi txarragatik. Mantendu egin zuten, ordea, Antton Garin bizilagunaren omenezko bertso bertso saio berezia. Amaia Agirrek aurkezle-gai jartzaile lana egin zuen Garinen hitz, kontakizun eta bizipenetatik abiatuta, eta pantailaren beste aldetik ere lagundu zioten Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluzeri gaiak ematen.



Antton Garin, oroigarriarekin. TXINTXARRI

Jon Ibisate Alday herritarrek Ohorezko mailan debuta egin zuten, epaile nagusi modura

Beltzak RTko harrobiko kide Eneko Sanchez Martinez eta Lander Zabala Ugartemendia gazteek 18 urtez azpiko Erki-degoen arteko Selektzioen Espainiako Txapelketa jokatu zuten Euskadiko selektzioarekin. Lehen jardunaldian Sevillara (Andaluzia) egin zuten bidaia herriko gazteek, hilaren 27an. Andaluziaren aurkako neurketan bigarren zatian sartu ziren biak zelaira. Lehia handia izan zen. Nahiz eta lehen minutuetatik Euskadi markagailuan aurretik joan, andaluziarrek neurketari itzulia eman eta puntu batengatik eraman zuten garaipena, 14-13.

Jon Ibisate Alday herritarrek hilaren 12an Ohorezko mailan debuta egin zuten epaile modura Pozuelo Rugby Union eta Unió Esportiva Satboniana norgehiagokan, Madrilen eta 20an, Europako Superkopako Brussels Devils-Bohemia Warriors partidari laguntzaile lanetan izan zen, Bruselan, Belgikan.



Ibisate, erdian. JON IBISATE

Ostadar Atletismoa saila, "babesgabe eta etsita"

Ostadar SKTko Atletismoa saila leko arduradun Amaia Andresek eta Oscar Goikoetxeak entrenamenduak aurrera eramateko pairatzen ari diren egoeraren aurrean, komunikatu bat idatzi eta euren egunerokoa lasarteoriatarrei jakinaraztea erabaki zuten. Atsobakar kirol gunea noiz ireki zain jarraitzen dute kirolari eta prestatzaileek, euren prestaketa errutina normaltasunera itzultzeko. 25 urtez udalerrian kirol diziplina hori sustatzen pasa ostean, "babesgabe eta etsita" zeudela adierazi zuten,

baina, hala ere, lanean jarraituko zutela.

Gakoa elkarbizitza dela borobildu zuten

ulturartekotasunari buruz hausnartu zuten urriko borobilean. 'Lasarte-Oria: harrera herria?' izan zen solasaldiaren izenburua, eta ekimenaren antolatzaileek gai horrekin lanean ari diren hiru eragile gonbidatu zituen: AMHER Hernaniko Elkarte Multikulturala, Zaldibiako Larizabal Herri Eskola eta Orioko Zaragueta Herri Eskola. Saio berezia izan zen, lehen aldiz bat-bateko itzulpenen gaztelelara itzuli baitzuten.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa lehiatzen hasi zen Ane Labaka Mayoz

Azpeitiako Baztartxo antzokian ekin zion bertsolari lasarteoriatarrak lurraldeko txapelketari, beste bost bertsolarirekin batera: Asier Azpiroz Iztueta, Eli Pagola Apezetxea, Maialen Aki-zu Bidegain, Oier Etxeberría Zubimendi eta Unai Mendizabal Jauregi. Saio hori irabazi ez bazuen ere, puntuazio nahikoa erdietsita hurrengo fasera sailkatu zen Labaka.

Gazteentzako diseinatutako programa

Partaideen "garapen pertsonala, sormena eta herriko bizitza sozialean parte hartzea sustatzea" helburu duten tailerrak prestatu zituen Lasarte-Oriako Udalak, horiek Gaztelekuan aurrera eramateko. Horrekin batera, Agustin Valdivia alkateak udalerriko gazteentzat jarduera hauen garrantzia azpimarratu zuen: "Gaztelekua ez da elkargune soil bat, gure gazteek gaitasunak garatzeko aukera eskaintzen duen espazioa ere bada, ingurune seguru eta aberasgarrian. Gobernu talde honek balioetan oinarritutako hezkuntza, aniztasunarekiko errespetua eta aisialdian euskararen erabilera sustatzen dituen eskaintzaren aldeko apustua egiten du irmoki".

Giro ederrean elkartu ziren 1974ko kintoak

Aurtengoa ez da nolana hiko urtea 1974. urtean jaiotako herritarrentzat, izan ere, 50 urte bete dituzte. Horrelako urtemuga berezi eta biribilak aitziaikia ederra dira berriz elkartu eta

elkarren berri izateko nahiz gaztetako anekdotak gogoratzeke. Horixe bera egin zuten hogeit bat pertsonak, Abend garagar-dotegian bazkaldu bitartean. Hauxe izan zen menua: gula eta ganba entsalada, pelaio erara prestatutako txipirotiak eta otarrainxkak, hasteko; xapoa edo entrekota aukeran; eta postrea. Horren aurretik, Okendo plazan elkartu eta trago batzuk hartu zituzten erdigunean.

Alerta laranja, euriagatik

Zeruari eta batez ere Oria ibaia-ri begira pasa zuten urriko egun oso bat lasarteoriatarrek, euria etenik gabe egin zuelako: 24 ordutan 60 litro baino gehiago bota zituen metro karratuko. Goizaldean trumoi ekaitz ugari ere jo zituen.

Mende laurdena bete eta ospatu zuten Buenetxea kafetegi-tabernak

Egitarau polit bat mimoz prestatu ostean aurrera eraman zuten Buenetxea kafetegi-tabernako lantaldeak, goizetik hasi eta iluntzera arte. Eguneko momen-



Erraldoiak, Buenetxean. TXINTXARRI

tu ederrenetako bat arratsaldekoa izan zen, LOZETeko erraldoi eta buruhandiak Pablo Mutiozabal kalera joan eta egun horretan bertan ospatzen ari ziren topaketaren barruan geldialdia ostalaritza establezimendu horretan egin zuteneko.

Apartamendu turistikoaren lizentzia berriak bi urtez ez atzeratzea erabaki zuten udalbatzarrak

Urriko ohiko udalbatzarra egin zuten udal korporazioak. Establezimendu turistiko berrien lizentziak emateko bi urteko luzamendua eskatu zuten Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos



Zuzeneko azken emanaldiko uneetako bat. TXINTXARRI

'Ur bizitan', azkenekoz

Zuzeneko musika, dantza garaikidea eta hitza ditu lanabes Haatik dantza konpainiak *Ur bizitan* ikuskizuna gauzatzeko. 2022an estreinako oholtzaratu zuten eta Manuel Lekuona Kultur Etxean egin zuten azken emanaldia.

alderdiak, baina eskaera hutsean geratu zen; aurkako boz gehiago jaso zituenez, ez zuten aurrera egin gaiak. Bestelako zenbait gai landu zituzten galdera eta erreguen tartean.

Jaso zituzten merezitako sariak

Juan Mari Apaolaza Estensorok (argazkia, *Sorginak etxera bueltan*) eta Isa Fernandez de Agirrek (argazkia, *ETXEruntz*) jaso zituzten TXINTXARRI-ren udako argazki lehiaketako sariak: Aldikaren saski bat eta Errigora produktuen otar bat, hurrenez hurren.

Adineko pertsonen konpainia egiten dien haria

Nagusilan elkarteak ematen duen zerbitzuetako bat da Zilarrezko Haria. Bakarrik dau den pertsonen zuzenduta dago eta ekimen horretan aritzen direnek konpainia egiten diete adinekoei, telefonoaren beste aldetik. Donostiako Miramar jauregian maratoi bat aurrera eraman zuten eta baita egun osoko egitarau bat ere, gai horri ikusgarritasuna emateko. Lasarte-Oriako zenbait udal ordezkari bertaratu ziren ekitaldira.

Iparragirre, ezin Hiru Hiriburuetako txapelketako finalera sailkatu

Maila ezberdinetako 68 pilotarik jokatu zuten Hiru Hirubu-

ruak txapelketa, binaka. Horietako bat izan zen Intza Kirol Elkarteko ordezkari Itxaso Iparragirre gaztea; Oiarpe KEKO Maria Balerdirekin osatu zuten bikotea eta A mailan lehiatu zen. Maila oso txukuna eman arren, ezin izan zuten finalera sailkatu.

Sei hilabete geroago, irtenbiderik ez

Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde (LOOPA) herri plataformak deituta, dozenaka lagunek bat egin zuten Okendo plazan egindako elkarretaratzearekin. Apirilean egindako lehen manifestaziotik urte erdi igaro bazen, konpobiderik gabe jarraitzen dutela salatu zuten aipatu eragile horrek.



Elkarretaratzea. TXINTXARRI

Herriko musikarien lan berriak
Denbora abestia estreinatuta zuten Ander Hazas eta Jagoba Mendizabal herritarrek. *Zenbat gau* arrakastatsuen ostean berriz elkartu eta aipatu lana ekoiztu dute, June Eizmendi herritarren ahotsa lagun. Horrez gain, Lurhats taldeak *Sendagai* diskoko *Amets Senti* kantuaren bideoklip ofiziala kaleratu zuen. Julen Basterra herritarrek eta Iban Nikolaik martxan jarritako proiektuak aldarrikatzen du medizina dela musika.

Intzako kirolariak, etxetik kanpo bikain

Intza pilota elkarteko kideek Ezker Horma zein Errendimendu txapelketako jardunaldiak jokatu zituzten. Nagusien 3. mailako bikoteak finalerako txartela eskuratu zuen eta, ondorioz Eibar 2ren aurka jokatu zuen Astelena pilotalekuan, Eibarren.

Villalobos eta Iristaka taldea, ligako bigarren

Azaroan lehen asteburuan, abadura patinajeko ligako azken jardunaldia jokatu zen Iruñean. 2. mailan lehiatu zen Tolosako Iristaka taldea eta bertako kide den Ximon Villalobos herritarra podiumera igo zen. Bigarren postua eskuratzear gain, lehen mailara ere igo ziren.



Villalobos eta taldekideak. IRRISTAKA

Tasa eta zergak %3 igoko zituela iragarri zuen udalak; hondakin bilketarena, berriz, %50

Azaroan bi gai garrantzitsu jorratu zituen udal korporazioak udalbatzarrean: Hiri Antolamendurako Plan Orokor (HAPO) berria "behin betiko" onartzea eta datorren urterako ordenantza fiskalen proposamena. Biak

Herritarrek, 59. Behobia-Donostian

Behobia-Donostia lasterketako 59. aldian jokatu zem hilaren 10ean. Lasarte-Oriako 136 korrikalari eta patinatzailek parte hartu zuten proban, eta horien guztien artean, Ximon Villalobos Alvarez rollerrak lortu du posturik onena; esprinta lehiatu ostean, podiumeko bigarren mailara igo zen. Beste hainbat lasarteoriatarren artean, lasterkari gisa heldu ziren helmugara Julen Ormazabal, Jon Presa eta Maite Salazar.



Zenbait herritar Behobia-Donostian parte hartzen. B-SS/T.V.

ala biak onetsi zituzten, udaltea koalizioan kudeatzen duten PSE-EEko nahiz EAJko zinegotzien botoekin.

Memoriaren Eguneko ekitaldia aurrera eramane zuten

Motibazio politikoko indarkeria kasuak gogoan izan zituzten Askatasunaren parkean, hilaren 10ean. Gotzon Huegun eskultore lasarteoriatarren *Biharren oroipena* eskulturaren inguruan bildu ziren udal korporazioko alderdi guztietako (PSE-EE, EH Bildu, EAJ, Elkarrekin Podemos eta PP) ordezkariak, Herritar Foroko kideak eta dozena bat pasatxo herritar. Komunikatu bat irakurri, Lourdes Iriondoren *Askatasuna zertarako* abestia kantatu eta larrosa zuriak jarri zituzten plakaren gaineko lorontzian zein eskultura osatzen duten hiru hilarri totemetako batean (EH Bilduko kideek egin zuten hori).



Larrosa zuriak, totemean. TXINTXARRI

Valentziako denboraleak kaltetuentzako laguntza, Lasarte-Oriatik

Herriko boluntario talde bat elkartu, eta jo eta su hasi ziren lanean Valentziako denboraleak kaltetuei ahalik eta material gehien bidaltzeko asmoz, Antonio Mercero aretoan. Horiez gain, Gurutz Iturbe suhiltzailea erer Valentziako Massanassa herrian egon zen, boluntario lanetan. Horren harira elkarriketa egin zion TXINTXARRI-k.

Etxebizitzaren gaineko solasaldia aurrera eramane zuten Borobilean elkarteak

Ikasturteko hirugarren mahai ingurua aurrera eramane zuten Borobilean Elkarteak: Errenterriko alkate Aizpea Otaegi, Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrieta eta Xuar Agirre gazte lasarteoriatarra gonbidatu zituen Oriarte Landaberrira; puri-purian dagoen gai horri buruz hitz egin zuten.

Trebatu, gozatu eta gogoratzeko Bertso Astea

Hilaren 26tik 29ra, udalerrian, Bertso Astea aurrera eramango zutela iragarri zuten Ttakun Kultur Elkarteak, udalak eta Earra bertso eskolak. Horren barruan ekimen nagusia I. Imanol Lizardi Sariketa izango zela esan, eta hori girotu eta indartuko zuten bertso solasaldiak eta bertso poteoak ere aurkeztu zituzten.

Ostadar izan zen Erregional mailako derbiaren garaile

Ostadar SKT eta Texas Lasarte-Orri CF taldeek norgehiagoka

jokatu zuten multzoko faseko lehen itzuliari amaiera emateko. Bigarren zatiko lehen minutuetan urdin-beltzek sartutako bi golek hankaz gora jarri zuten Texas Lasarte-Orriaren jokoak.

Ttakun Kultur Elkartearen 33. urteurrena

Hiru hamarkada pasatxo darmatza eragile horrek Lasarte-Oriaren euskara eta euskal kultura normalizatzeko lanean; zehazki, 1991ko azaroaren 16tik. Sortzaileek imajina zezaketena baino dimentsio askoz handiagoa du eta programa ugari kudeatzen ditu.

X. Pintxo Bidea

Aterpea merkatariaren elkarteak hilaren 22, 23 eta 24an X. Pintxo Bidea aurrera eramango zuela iragarri zuen. Hori jakinaraztearekin batera, bertan parte hartuko zuten mokaduen aurkezpen eta dastaketa egin zuten, Semblante Andaluz elkartearen. Suhari jatetxeko Xabier Santxo izango izan zen epamahi profesioanala. Garaileak, geroago jakinarazi zituzten: Araeta (epaimahaiaren gustukoena) eta Herriko Etxea (herritarren gustukoena) izan ziren.



Pintxo Bidearen aurkezpena. TXINTXARRI

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna
Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira udalak iragarritako egitaraua aurrera eramane zuten hilabeteko zenbait egunetan. Ixiar Rozas idazlearekin egindako solasaldia izan zen egitarau horren barruan egindako lehen ekimena, eta hortik aurrera etorri ziren gainerakoak; hilaren 25eko elkarretaraztea, besteak beste.

Ondas saria 'Faktoria Magazina'-rentzat

Getutasuneko saiorik onenaren Ondas saria jaso zuen Euskadi Irratiko *Faktoria Magazina*. Bartzelonako Liceu antzokian aurrera eramane zuten sari banaketa, eta bertan izan zen aipatu irratsaioa osatzen duen lantaldea; horien artean bi lasarteoriatar: Maider Seguro eta Dorronsoro eta Asier Odriozola Gonzalez. Horiei elkarriketatzat bana egin zuten aldizkariak.



Seguro eta Odriozola. M. SEGUROLA

Larraitz Izagirre eta Begoña Igartua, garaile

Lasarte-Oriako toki izenei buruzko bigarren lehiaketako sariak banatu zituzten Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta TXINTXARRI aldizkariak. Galdera nahiz argazki erronketan ehun jokalarri baino gehiagok parte hartu zuten. Hogei galderaren erantzun behar zituzten partaideek, eta argazki jakin bat bidali ere bai. Hala, gehienak asmatzeaz gain argazkia ere zuzen bidali zutenen artean egindako zozketan Larraitz Izagirrerri egokitu zitzaion saria. Bestalde, parte hartzaile guztien artean beste sari bat zozkatu zuten, eta hori, Begoña Igartuak irabazi zuen.

Baserriko produktuen erakusleihu

San Martin egunaren bueltan baserriko produktuen azoka aurrera eramán zuten Behe-mendi elkarteak eta udalak, hamargarren aldiz, Okendo plazan. Herritarrek kalitatezko produktu freskoak ekoizleei zuzenean erosteko aukera izan zuten; hala nola, porruak, urazak, patatak, eta abar. Horiek guztiak, bertako baserrietakoak.



Nekazaria barazkiak saltzen. TXINTXARRI

Zarzuela eta akordeoi jotzaileak, oholza gainean

Zero Sette Akordeoi Orkestrak Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean antolatutako 21. Nazioarteko Akordeoi Jaialdia ospatu zuten kultur etxean. Bi ordu iraun zituen saioan, instrumentu berarekin doinu oso bestelakoak lor daitezkeela erakutsi zuten. Horrez gain, Sasibill Elkarte Lirikoak *Neska bihurria (La Revoltosa)* zarzuelaren emanaldia egin zuten bezperan.

Igerilariak lehen fruituak jasotzen

Gipuzkoako Neguko Ligako 2. jardunaldia ospatu zen Hernanin eta Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta maila absolutuko hamabost igerilari lehiatu ziren.

Lehen jardunalditik entrenamenduen eta proben maila igo zuten igeriketa taldeko kideek eta Hernaniko saioan aukeratutako banakako probak 50 m. tximeleta, 400 m. lau estilo, 200 m. libre eta bular zein bizkar eta bular estiloko 100 metroko probak izan ziren. Saio amaitzeko estilo libreko 4x100 m. erreleboan ere parte hartu zuten taldeko kideek.

Aurretiako fasea, taldea egin eta sendotzeko

Ostadar Boleibola ataleko taldeak Gipuzkoako liga hasi aurretiko fasea jokatu zuten. Hilaren 16an, goizean, kadete mailako A taldeak eta infantil mailako kideek errezel batek bereizita jokatu zituzten euren neurketak Maialen Chourraut kiroldegian.

Kantxa erdiko zelaian, Eider Aldazabalek zuzentzen duen kadete A taldeak 0-3 galdutako Usurbilen aurka.

Kadeteek ez zuten prestakuntza fasea ongi hasi, baina pausoz pauso taldea egin eta ligari begira egin zuten aurrera.



Boleibol jokalaraiak. TXINTXARRI

Literatura lanen sariketa

Haur eta gazteen nahiz helduen lehiaketetako sariak banatu zituzten kultur etxeko hitzaldi aretoan: saridunak, euren senideak eta udal ordezkariak bildu ziren aipatu aretoan. 150 eta 278 lan aurkeztu zituzten aurtengo lehiaketara bi sari-keretako parte hartzaileek, hurrenez hurren.

Gipuzkoako txapelketako podiumetan

Taula Xake Klubeko kideek banakako Gipuzkoako txapelketak lehiatu zituzten azaroan ere. Askotariko mailetan aritu ziren Bigarren, Hirugarren zein Superbeterano mailetan eta bitan izan ziren herritarrek lehen postuetan. Jose Ignacio Echeverria Eleicegui garaila izan zen Superbeterano kategorian eta hirugarren mailako lehian Erlantz Sanchez Huetak brontzezko postua eskuratu zuen. Sanchezek, gainera, bigarren mailarako igoera eskuratu zuen. Eurekin eta Taulako kide eta eskolako arduradun Alex Sanchez Andresekin bildu zen TXINTXARRI

banakako txapelketaren, datoren urteko taldekako lehiaren eta xake eskolaren gainean hitz egiteko.

Zaindariaren omenez, kalera

Santa Zezilia egunaren bueltan (hilak 22) jarduerak aurrera eramán zituzten Udal Musika Eskolak (UME), herriko txistularien taldeak, Xumela koruak eta Oaintxe in deu! txarangak (batera aritu ziren) eta Alboka abesbatzak. Kalera irten eta katuz zein musikaz bete zituzten herriko bazter ugari.



Abokako kideak, kantuan. TXINTXARRI

Gurpil aulkiko eslalom jardunaldia

Gurpil aulkiko eslalom proba ezberdinez gozatzeko aukera izan zen hilaren 30ean, Michelin kirol guneko pista estalian. Ostadar Inklusioa sailak eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz, Gipuzkoako kirolariei zuzendutako jardunaldia prestatu zuen.

Ostadar Inklusioa taldeko zein Donostiako Kemen KEko hamar bat kirolarik parte hartuko dute eta maila ezberdinetako erlojupeko zein banakako kanporaketa saioari egingo diete aurre zirkuitu itxi batean.

Herritarrek, Laudioko podiumean

Laudioko krosa lehiatu zen eta bi herritar podiumean izan ziren. Master mailako Euskadiko txapelketa jokatu zen Arabako herrian eta Mari Carmen Olosa herritarra 55 urte baino gutxiagoko mailan bigarren sailkatu zen (29.14). Proba horretan, gainera, Aimar Sukunzak ere promesa mailako garaikurra jaso zuen. Sailkapen orokorrean bederatzigarren izan zen herritarra 32.55 denborarekin eta denbora horrek gazteen mailako lehen postua ere eman zion. Jon Pre-



Antolatzaile eta gonbidatuak, prentsaurrean. TXINTXARRI

Maite dituztela esateko

Maite Zaitut festa erraldoia iragarri zuen Maite Zaitut Kultur Elkarteak Pirritx, Porrotx eta Marimotots omentzeko. Jalgi kafe antzokian aurrera eramán zuten agerraldia, eta Amagoia Mujikak, Ane Labakak, Nerea Godoy eta Agurtzane Intxaurrea. Bertan iragarri zuten maiatzaren 3an izango dela, 17:00etan, BECen; "euskal gizarteari egin dioten ekarpena" aitortu eta eskertuko diete.

sak ere parte hartu zuen proba horretan eta 32.56 egin zuen.

Euskal reggae talde baten sorrera

Tirabira izena du Xabi Herrera herritarrek eta Iñigo Egiak sortu, gidatu eta gorpuztu duten proiektuak. Hemezortzi kantuz osatutako bi disko atera zituzten, hil honetan, kolpe bakarrean eta abenduan aurrera eramango zuten zuzeneko lehen emanaldia iragarri zuten. Horren harira, aldizkariak elkarrizketa egin zion Xabi Herrera *Xa2* proiektuaren sortzaile eta taldeko kideari, eta horretan bildutako informazioarekin erreportaje bat argitaratu; horretan jakinarazi zuten, adibidez, BAT izeneko euren lana Jalgi, Andatza eta Avenida tabernatan erosi dezaketela herritarrek.



'Tirabira'-ko kideak. X. HERRERA

Harrobikoak, selekzioekin

Beltzak RTko harrobiko kirolariak Euskadiko zein Espainiako selekzioarekin lehiatu zuten hilaren 23an eta 24an.

Zarauzko Asti zelaian 18 urtez azpiko Erkidegoen arteko Espainiako txapelketako jardunaldia jokatu zuten Euskadik Kataluniaren aurka.

Lander Zabala Ugartemendia eta Eneko Sanchez Martinez herritarrek hamabostekoan jokatu zuten. Azken minutura arte borrokatu zuten arren, ezin izan zuten Euskadik Katalunia garaitu.

Antzeko egoera bizi izan zuten Alex Saleta Atorrasagastik Espainia eta Amerikako Estatu Batuen arteko norgehiagokan, Madrilén.



Errugbi partidaren une bat. J. SANCHEZ

Errumaniaren Eguna ospatzen

Decebal elkarteak Errumaniaren Eguna ospatu zuen Gizarte Etxean. 1918an Gipuzkoan bizi diren errumaniarrak batu ohi dira nazio horren parte direla eta etorkizun hobe baten itxaropena dutela adierazteko. Jaioterriko plater ohikoekin osatutako menua bazkaldu eta Bogdy Stoika folklore taldearen kontzertuaz gozatu zuten, dantza tradizionalak eginez. Gainera, Aita Noelen bisita jaso zuten.

Almagro atleta gazteak ederki hasi zuen pistako denboraldia

Ostadar SKTko Oinatz Almagro Zaldia kirolariak 20 urtez azpiko pistako Espainiako txapelketan parte hartu zuen Bidasoa Atletiko Taldearekin (BAT) Sabadellen (Katalunia). Jauzi hirukoitzeko proban lehiatu eta zazpigarren postua eskuratzeaz gain, bere marka pertsonala ondu du; azken saia-keran 12,69 metroko jauzia egin zuen gazteak.



Presa, podiuean. @JDIIEGO.PHOTOS

Presa eta Oloso, podiuean

Jon Presa Herranz herritarra Zalla-Balma-Zalla lasterketako garaile izan zen. Herritarrek 47.57 behar izan zuen 14 kilometroko ibilbidea egiteko. Eta Kroseko Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Eibargo Bolunburu Oroimezkoaren barruan. Mari Carmen Oloso Espeso podiuean amaitu zuen proba. Zehazki, 55 urteko mailako txapeldunorde izan zen Oloso; master mailako sailkapen orokorrean zortzigarren (14.56).

Pasaiako hilketa matxista gaitzetsi dute

Lasarte-Oriako Udalak deituta, elkarretaratzea zuten herritarrek Okendo plazan. Pasaiako

Belarrietako azkura, Illunbetik mundura

Ane Labaka Mayo herritarra bigarren aldiz aritu zen herritarra Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean. Lasarteoriarrak saio biribila osatu zuen eta laugarren sailkatu zen, berak nahi bezala, egotetik harago egiten asmatuta.

Alaia Martin Etxebestek irabazi zuen txapela, final bikaina eginda, hasi eta buka. Beñat Gaztelumendi Arandiaren aurka jokatu zuen buruz burukoa oartzuarrak.



Ane Labaka Mayo, ariketa batean abesten. GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

hilketa matxista salatzen elkartu ziren lasarteoriarrak. Erailketa hori gaitzesteaz gain, azaroaren 23an udalerrian gertatutako eraso matxista bat ere deitoratu zuten.

Herriko Etxea eta Araetaren pintxoak gustukoak

X. Pintxo Bideko sariak banatu zituen Aterpe elkarteak. Herritarrek aukeratutako Aterpea sariaren irabazlea Herriko Etxea izan zen eta epaimahai profesionalarena, aldiz, Araeta sagardotegia.

1.022 pintxo saldu zituzten aurtengo X. Pintxo Bidean parte hartu duten ostalaritza establezimenduek. Aurtengoa "izugarria" izan dela nabarmendu zuten sari banaketara joan ziren partaideek.



Ertz taldea. M. EIZMENDI

'Gaztea' irratiko maketa lehiaketan parte hartu zuen Ertz taldeak

Bost gazte lasarteoriarrak -Ane Jimenez (trikitixa eta ahotsak), Lander Jimenez (tronpeta eta tronboia), Oier Toquero (gitarra eta ahotsak), Leire Anabitarte (baxua) eta Urtzi Furundarena (bateria)- sortu berri duten Ertz taldeak 'Gaztea' irratien maketa lehiaketako lehen fasean parte hartu zuen. Lasarte-Oriako taldeak

sortutako hiru abesti aurkeztu zituen lehiara, baina herritarrek ezin izan zuten hogei aurre finalisten zerrendan sartu.

Sakelako telefonoak eta nerabeen gaineko solasaldia

Lasarte-Oriako Altxa Burua ekimeneko kideek gonbidatuta, Orainprebentzioa adikzioak saihesteko egitasmo kide Mikel Cerezok hitzaldi interesgarri bat eman zuen Antonio Mercero aretoan. Gailu digitalak erabiltzeak "argi-ilunak" dituela nabarmendu zuen, hau da, badituela "arriskuak", baina baita "positiboak" izan daitezkeen erabilerak ere.



Herritarren aurkezpenak. M. MANSO

Lasarteoriarrak, Durangon

Herritarren lanak ikusgai eta salgai izan ziren 59. Durango Azokan. Iñaki Petxarroman kazetaria eta idazleak, 'Lehendakariaren alaba' thrillerra aurkeztu zuen eta Pablo Barrio idazleak '2074'. Herriko beste zenbait sortzaileen lanak ere eskuragarri izan ziren azoka eremuko stand-etan, besteak beste, Aintzane Usandizagarenak, Ane Labakarenak, edota Katxiporretako kideenak.

Kulturartekotasuna, hizpide

Lasarte-Oriako Bizipoza taldeak 'Lasarte-Oria koloretsua kul-

turartekotasunetik elkarrekin lantzen' solasaldia aurrera eramanez, Antonio Mercero aretoan. Herriko ikastetxeetako (Garaikoetxea-Landaberri, Sasoeta-Zumaburu eta Oriarte BHI) ordezkariak, Ostadar SKT, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskola, Ttakun Kultur Elkartea eta Kummel Elkartea batu ziren Bizipozako kideekin batera eta bakoitzak bere errealitate eta bizipenen gaineko hausnarke-ta partekatu zuen.

Buruntza mendian herrota eolikoak eraiki nahi dituzte

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldizkari ofizialean jakinarazi zuen Andoain, Urnieta eta Lasarte-Oriako lurra hartzen dituen Buruntza mendian hiru haize errota eoliko irekitzeko deialdia argitaratu duela Mendiko Haize SL enpresak.



Egoiliarrek, Okendo plazan. TXINTXARRI

Eguneko Zentroko egoiliarrek, osteratxo ederra bizikletan

Bizikletan Adinik Ez egitasmo lagunak Atsobarreko egoitzara etorri ziren, Eguneko Zentroko zenbait egoiliar bizikletetan hartu eta herrian barrena osteratxo bat egitera. Giroa hotza izan arren, behar adina arropa jantzi eta pozarren ibili ziren, bidean topatu zituztenak jator agurtzen.

Ez dute borrokatetik jubilatze asmorik

Pentsio publikoaren orainaz eta geroaz gogoeta egiten itxi zuen urtea Borobileen Elkarteak. Gai horren bueltan lanean ari diren eragileetako lau kide gonbidatu zituzten: Euskal Herriko Pentsionisten Mugimenduko kide Karlos Etxeberria, Onea plataformako ordezkari Nekane Berriotxo, Duintasuna elkarte kide Joxean Urkiola eta Irungo Pentsionisten Mugimenduko ekintzaile Sole Agirre. Bakoitzaren hasierako hizartzearen ostean, solasaldira batu ziren Oriarte Landa-berrira bertaratuak herritar-rrak.



Atsobarren argazkia. OSTADAR ATL

Ostadar SKTko atletek, entrenatzeko baldintza aproposik ez

Ostadar SKTko Atletismo sailko kideek atletismo sailak bizi duen egoera herriari jakinarazteko idatzi bat argitaratu zuten entrenatzaileek eta pista berriaren "kudeaketa txarra" salatzen argazki masiboa egin zuten kirol instalakuntza horren aurrean. Naroa Furundarena Urkiola pista estaliko jauzi hirukoitzeko Espainiako txapeldunordearekin solastu ginen atletismoko saileko egoera zehatza zein zen jakiteko.

Herritarrek dominak, Gipuzkoako triatloi eta duatloi galan

Gipuzkoako duatloi eta triatloi txapelketetako sari banaketa ekitaldia egin zen Donostiako Kirol Etxean. Bi herritarrek dominak jaso zituzten 2024 urteko jardunarengatik, Zumea-tarra taldeko Aimar Sukunza Gomez eta Lasarte-Oriako Trin-ko taldeko Mikel Izagirre Aramendi. Sukunzak Zumaian lehiatutako Gipuzkoako txapelketako 23 urtez azpiko zilarra eta absolutu mailako brontzea jantzi zituen; Izagirrek, aldiz, beterrano 2 mailako zilarra Gipuzkoako Duatloi txapelketan.



Elkartasun pintxo-potea. TXINTXARRI

Jostailu bilketa eta pintxo-pote solidarioa

Valentziako hondamendiak kaltetutakoen alde lanean ari den herriko boluntario taldea eta Donostiako Motard motorzale elkarteko kideek Antonio Mercero gunearen atari ondoan, haurrentzako jostailuak bildu zituzten. Dohaintza egin zute-nek edota ekarpen ekonomikoa, mokadua egin eta trago bat egitera gonbidatu zituzten, pintxo-pote solidarioan. Giro hotza berotzeko, gainera, musika jarri zuen DJa ere bazen.

LOKEko judoek, gerriko beltzak eta DANak

Espainiako Judo Federazioak bere 75. urteurrena ospatzeko gala egin zuen Las Palmasen (Kanariar Uharteak). Euskal Judo Federazioko kideak izan ziren bertan, besteak beste, Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Gorka Aristegi. LOKEko prestatzaileak, gainera, gerriko beltzeko 7. DANa lortu izanaren diploma jaso zuen. Horrez gain, taldeko Ekain Luisek eta Nestor Silvak gerriko beltza eskuratzeko azterketa gainditu zuten.

Errugbiaz gozatzeko goiza Michelin kirol gunean

Errugbiaz gozatzeko aukera ederra izan zen, Michelin kirol gunean. Beltzak RTko emakume taldeak bere debuta egin zuen Mater ligan eta jardunaldia jokatu zuen Bera Bera eta Arrasate taldeen aurka. Mater Ligako jardunaldia jokatzeko ari zen bitartean, 10 eta 12 urtez azpiko errugbi eskoletako kideak beroketak egiten ari ziren eta materrek amaitzean, gaztetxoek euren trebezia erakutsi zuten.

Herriko atletak, ederki pista estalian

Lasarte-Oriako atletak pista estaliko bigarren jardunaldi izan zuten eta Ostadar SKTko Oinatz Almagrok eta Iraia Alkorkak, Real Sociedadeko Naroa Elvira zein Aloña Mendi tal-

Ilusio eta goxotasunarekin, mela-mela

Egun paregabea igaro zuten Mari Domingi eta Olentzerok gure herrian, goizetik hasi eta iluntzera arte. Eguraldiak ez zien batere lagundu, baina giro hotzari ederki eman zioten buelta herritarren goxotasunarekin.

Ttakun KEK eta Lasarte-Oriako Udalak prestatu zuten egitaraua goizean hasi zen. Loidibarren pilotalekuan elkartu ziren ikastetxeetako ikasle, guraso eta Ttiriki Ttarraka eskolako musikariak gabon abestiak kantatzera. Okendorantz joan ziren jai giro zabaltzera: bertan txokolate bero eta goxoa jan eta Xixuko ahatea agurtu aurretik, ikastetxeetako umeen marrazki erakusketa ikusi zuten gehienek. Bitartean Mari Domingi edota Olentzero ikusteko ilara egiten ari ziren lehen txandetako haurrak.



Ikuskizuna lepo zegoen Loidibarren pilotalekuan egin zen. TXINTXARRI

Irribarrea aurpegian eta ilusioa bihotzean sartu ziren guztiak.

Arratsaldeko egitaraua moldatzea erabaki zuten antolatzaileek, eguraldiagatik. Desfilea bertan behera utzi eta ikuskizuna aurrera eraman zuten Loidibarren pilotalekuan. Mari

Domingi, Olentzero, Porrotx, Maritxu Teilatuko eta Xixukok girroa bero mantentzeko zaku karrera berezia eta haur eta gaztekin dantza egin zuten. Amaieran elkarri agur esan aurretik, talde argazkia atera zuten.

deko Jon Presa herritarrek euren onena eman zuten marka pertsonalak gainditzeko.

Lasarteoriatar bat hil zen auto istripu batean

Lasarteoriatar bat hil zen N-1 errepidean, Tolosa parean, gidatzen ari zen ibilgailuaren kontrola galdu eta istripua izanda; ezbeharraren unean bertan hil zen 44 urteko herritarra. Gertatutakoa ikertzen ari da Ertzaintza.

LOKEko tenislariak, finaletan

LOKEko tenis ataleko kideak banakako Gipuzkoako txapelketako finaletan izan dira lehian. Lide Sobrado kadeteen mailako txapeldunordea izan da. Kontsolazio finaletan bi taldekide garaile izan ziren mailan ezberdinetan: Laiene Ugarte kadete mailan eta Oihane Iradier infantil mailan. Bestalde, Euskal Tenis federazioak Euskal Tenisaren historia bat irudietan liburua argitaratu du. Bertan LOKEko prestatzaile Mariasun Yurrita agertzen da mitoen atalean.

Kirol ahalegina aitortuz

Azken hamabi hilabeteetan nabarmendutako kirolariak saritu zituen Lasarte-Oriako Udalak Manuel Lekuona kultur etxean antolatutako galan. Emakumezko eta gizonezko kirolari onenari dagokiona, Aiora Belartietza Galardi arrau-



Aurtengo sarituak. TXINTXARRI

lariak -bigarren goz- eta Jon Martin Vicente futbolistak jaso zuten; ibilbidea aitortzen duena, aldiz, oraintsu erretiroa hartu duen Jose Felix Solano Menak.

2025ko egutegiko irudien egileei, saria

Lasarte-Oriako Udalak datorren urteko egutegia apaintzeko abiarazitako *Lasarte-Oria zure objektiboan* argazki lehiaketako sariak banatu zituen. Datoren hamabi hilabeteak apaintzeko aukeratutako argazkien egileak bertan izan ziren beraien saria (edo sariak) jasotzeko.



Solasaldiko momentu bat. TXINTXARRI

'Zinemakumeen' filma ez zen mutua izan

Emakume Sortzaileen III. Jardunaldia aurrera eraman zuen Ihitten elkarteak, Antonio Mercero aretoan, 'Zinemakumeak' izenburupean. Ane Arteaga Otaño errejidore eta dekoratu laguntzailea, Ione Artola Irizar jostuna, Haizea Huegun Duran musikagilea eta Dorleta Urretabizkaia Egizala aktoreak gonbidatu zituen herriko eragileak bere bizipenak partekatuz.

Merkatarien erakusleioek saria jaso zuten

Eguberriko erakusleioen sarien banaketa egin zuen Aterpea elkarteak. Herri epaimahaiaren eta profesionalaren iritziak ez ziren guztiz bat etorri aurtengoan. Ormazabal loradenda izan zen herritarren gustukoena, eta, Ventanas Alcar izendatu zuen garaile epaimahai profesionalak.

2025eko aurrekontuak onartu zituen udalbatzarrak

Lasarte-Oriako Udalak 40.709.521 euroko aurrekontua izango du 2025ean. PSE-EEk eta EAJk euren aldeko botoekin atera zuten aurrera proposamena eta PPK ere babestea erabaki zuen. EH Bilduk eta Elkarrekin Lasarte-Oria Podemosek, berriz, aurkeztutako kontuen aurka egin zuten eta desadostasunaren arrazoiak azaldu zituzten, besteak beste, gai "garrantzitsu"

hori lantzeko moduan fokua jarrita. Horietan, inbertsioetara 12.000.000 euro pasatxo bideratuko ditu udalak eta ia erdia Michelingo kiroldegi berria eraikitzen jarraitzeko erabiliko du.



Antxordokiren azken hitzartzea. TXINTXARRI

EAJko Jon Antxordokik zinegotzi kargua utzi zuen

Ez-ohiko batzarrean EAJko Jon Antxordokik uko egin zion zinegotzi aktari. Bederatzi urte eta erdiren ondoren, udaletxeko jarduna utziko du Lasarte-Oriako EAJko bozeramaile izan denak. Eskerrak eman zizkien zeregin horretan bidelagun izan ditueni eta egin-dako "gauza onekin" oroitzeko eskatu zuen alderdi jeltzaleko kideak: "Gaizki esandakoak ahaztu eta ongi egindakoak gogoratu".

Herritarrak, Gipuzkoako Kirolgalan sarituak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Departamentuak antolatzen duen Kirolgalan Maialen Chourraut Yurramendi herritarrak Distira saria jaso zuen bere ibilbide bikainagatik. Martin Berasategi sukaldariak ere Kirol enpresa saria jaso zuen Donostia Arraua Lagunak kluba babesstuz emakumeen arraunketari laguntzeko egin duen lanagatik. Horrez gain, aurtengo Parisko Olinpiar eta Paralimpiar Jokoetan parte hartu duten Gipuzkoako kirolariak ere aintzatsi zituzten, hala nola, Chourraut bera eta Buruntzaldea IKTko Nahia Zudai- re igerilaria.

San Tomas azoka jendetsua, Eguberrien aurrekari

Beste urte batez Ttakun Kultur Elkarteak San Tomas azoka antolatu zuen Okendo plazan eta jende ugari bertaratu da abenduko jai esanguratsuenetako batez gozatzera. Zerririk ez, baina txistorra, taloa, sargardoa, kantak eta dantza izan ziren, beraz, egun osoan ospatzeko ezer ez zen falta izan.

KOMERTZIO TXIKI HERRI HANDI

LASARTE-ORIA



BARNE-DISEINUA

SUGATE

SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
 - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com



ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

GRE MI OAK



IGELTSERITZA

Uraitz, s.l.

Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA



KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK



ANORGA TXIKI S.L.

KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
 - Ispiluak
 - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943-37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com



32. URTEURRENA

ISU

PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak,
barandak, toldoak, armairuak,
eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95
ventanas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL



ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?
PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66

BAZKIDETZA

Bazkide egiteko:



GAZTE BAZKIDETZA



URTARRILAREN 31era arte egiten diren bazkide berrien artean EUSKARALDIKO produktuak zozkatuko ditugu!



TTAKUN KULTUR ELKARTEA

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA



Lasarte-Oria

Elkar mugituz egingo dugu

IZEN EMATEAK

Entitateak: urtarrilean
Norbanakoak: martxoan

